


Pierre ARBURU

A



RHODIA



# Kresala ~

Auteur : Domingo Aguirre, prêtre.

Adapté au Basque du Labourd  
par J. P. Deburu  
(traduit aussi en français avec  
autorisation de la maison d'édition  
Txanopene)

Essai de Coordination  
pratique des dialectes  
basques.

Juillet 1957

Coskualdun arrantzaleen Ohidurak

N° 2  
col

# Kresala

- I -

Ekaitza - Galerna.

Iphar arzea, geiagokorik gabe,  
bet-betan, eta asarrerik anhenean,  
Iartu zen Arranondoko herritchoan.  
Batean eta gelduriak egoki ziren  
bide bazterretako paper tchotx, legar,  
lasto, buruko ille es a bortz zikinkeria,  
errestaka ta birabiraka ibili ondoan,  
iduri charu nahi billakatu ereman  
giztuen aize hunek escher buruak <sup>Kaskoak</sup> ban  
ainitz gorago; idekiak ziren ate ta  
leio guziak io harat, io hunat, hetsi  
giztuen zaripaka berin edo mitren  
urrikorik gabe! etche guinetan ongi  
lotuak ez ziren sella zaharrak eta sella-  
tuen egaletoako harriak puskatu ziren  
beruala burrekoen koutxa. Eta beren  
bezitokietarik ateratu-ta, ari ziren emaz-  
sekiak eta herrian zeuden guzen banakak

itsas alderat lasturka, egin ala egin.  
Ai! gure Chalupak! Ziora atso  
gerri lodi, gonalabur, esku zikindun  
balek, gaizki loturik zaukan buru-  
Kotik buztan bat delindan, zango  
bat ortuolik eta bortzean ezpartin  
zahar bat errestan zaramala. --

Oi - Ene Jesus!!!

Ee Gramana! begira! egun ziora  
beletik ziora bertze emazteki argal,  
mehe, zinem, ezurton latek leio  
fuska bat gain-bera heldu zela iku-  
sita, eta aintzineko, ezker, eskuin, eta  
gotu begira aldaratzan an zenean, erori  
zen sudurren gainerat leio fuska, mi-  
tren zillar orrobots tintintsuetaim,  
chehatzen zitzaiolarik beri sahetekim.

Gibelekoari iru egiteko nahi Andia  
etorri zitzaión bainan lurream luze-luzea  
zagorri behako bat eman ta ebezuela  
mumk artu ikusi zuenean, artu zuen  
bereala bere bidea arin-arina.

Chutitu zen atso gerri lodia, jauntzi  
zuen hobeki onetik yada ateratua zuen

bere ezpartin bakarra esku ~~ez~~, beteak igortzi  
zituen sudurren ~~inguruaren~~, eta artzu zuen lehen  
eroian abiadeara, mar. mar bera ~~bailean~~ murduri kan:  
Zeri hari othe da iruz emazte zantar zikim  
prior? - Bai, zu bethi Brix izanen zare, herriko  
emazterik ergelena!

Itsas alderat heldu zenean, ahantzi zitzaitzkon  
denak. Han zagozen orduketz herrian ziren  
gizon guziak. Hemen herriko apez nauzia eta  
ongi jauntzitako gizon lizardun beltzaran bat,  
Katalosa luze-luze batzuetan, chandazka  
ribiliz, itsasorat begira, eta inguruau, gizon  
ta emazte aintz, mihiarekin bano begietan  
geiago galdeketan. Haratcheago, chalupa  
jabe batzuek eta arrantzale zaharrak oyuka  
deitzalea azkarra baze edo ezpazen, goizal-  
deko ekaitza ezagutu bazeitekeean edo ezpai-  
zetekean, alpernikako eztabaiekim beroturrik.

Eta, bertze aldean, emazte alde handia, ne-  
garrez. Geren Kotillu edo gona barne alde-  
~~mekim~~, nigar-malko ziñezkoak igortzika.  
Andana hortan sartu ziren Gramana ta Brix  
bat chichtaka, arrantzaka bertzea.

Beldurgarria zen Kantauroko itxaso —

Urlandoko estalki handi bat jarri zitzzion  
gain alde guzian, bere itxura gaichtako  
asarrea gorde nahi izan balu bezala,  
luneta edo betaurekorik hobetikin ere,  
urralderat begira zagozenek etzuten  
deusik ikusten; ageri zen itsaso pista,  
borde-beltzaren irakitan harizten; eta  
irakinaren dardarek azal guzian ateratu  
zituen apar (écume) ~~zein~~ churiak, igerika  
dabiltzan marrazo gizon jaleak iduri zuten.  
Han, barnean, lañok eta aparrak estalari k  
zeuzkaten ur gazti zabaletan, gauza harri-  
garrien batzuet gertatzentziren, olatu edo  
tiraren horruet ziotenez.

Gogoeta hantxe zagozen bezaz Arranondoko  
gizon-emazteak; eta bertze holakotan  
bezala jainkoaren urrikari ohoitz apal,  
bat egiteko asmo zuzera artu zuten denek.  
Asi zen eliz-eguztillarik handiena, durrundi  
edo dangarik lodi ta ilhunenekoa, emeki  
emeki, noizean behinka dangada bat jotzen  
eta asi ziren ~~ta~~ eskolako edo ikastetxeeko  
muliakoak. Karriketan barna, makilla baten  
gunean oihal puntska beltz bat aizpaturik;

heien errient edo erakuslea demen amitzinean  
zoalariak, aingeruen gisako hitz egietkin. Gure-  
toroko edo garbitotako armentzat estalatuta  
itsasoarekin borroka gogorrean zabiltzan bura-  
soentzat, zermestako altari ohoitz egiten.

- Nolako ohoitz! - Gauza hunkigarrinagorrik  
ez du mork egundaino ikuhi. Haurret bura-  
soen bitarteko. Hobengabeatx gaichtagiren alde,  
indarigabekoak indardunak lagundu nahiz,  
amgerutchoak gizonentzat estalzen, nigarrez  
geienak, nigarra <sup>elkartarra</sup> ezarkorra baita, batek arreba  
ta bertzeak ama nigarrez ikuhi dituelakotz.

- Itxas-herrietako haurren ohoitz, ~~ben~~  
gapeluaak estuan, begi bushiak zerriat begira  
erraten duten Gure Aita, jainkoaren ja-leku  
nausirat chuchen-chuchena doala niste dut  
nik, eta eskarri horiek, askotan, heien indarrek  
bano geiago erakartzen dituztela etchealderat  
Kantauria itsasoko arrantzale gizagaichoak.  
Gure Muntxek eliza-atean amaita edo akalatu  
zaten eskarria eta han ziren gizon-emaztekim  
batean sartu ziren eliza-barnean.

- Ederria da Arranondoko eliza. Kanpotik  
ikusita normatiiek badaki gđdotarren  
lanketakoak hobetinetarik dela; barnetik zer-

erakoa den mirek ez dezake ezagutu.  
Bortz edo sei elizmairi edo aitare badauzka  
Zabalak eta ederrak, nagusiaaren eskuin-  
aldekit San Pedrorena, ezkerretik gure-  
tzean josirik dagon Jesusena.

— Aprezak, Jesusen elizmairi aintzinerat  
etxorrera, asi ziren Miserere, David  
Igarle edo Projetaren otoitzaren erraten,  
eta herri guzia egon zen oren orditza bat  
gauza guziak egiten ahal dituenean Jesus onaren  
aintzinean auspea, galderik beroenekin  
itsasotar guziak osasunez etcherat jar-  
zaitziela ~~dantza~~ estatzen.

R Galderik beroenekin erran dute alabainan  
denek dantza estari gizziak ez direla  
berdinak: batzuek otzak izaten dire, bertze  
batzuek epelak; bainan berwak ere badine,  
eta, nere iduriz, itsasoaren erdian eta  
itsas-bazterretan egiten direnak, bero  
ta bikoitzkoenak. Irriku handiek  
ematen diote bikoitzari herosturik handiena,  
eta bikoitz astindua denean, zuri ~~ostea~~  
aroak gauzarik egoki ta zintzoenak  
erraten ditu. — Eta noiz ez dabila

gizona irriku handietan, itsasoaren erdian? 4

Eta noiz ez dire itsas-bazterretako emazteak  
buraso batea edo sema maite baten galtzekotan?

— Orramondokoak elizatik ateratu zirenean, kai  
aldean gelditu zirenak asi ziren berriketa:  
lehorrekat sartu zela chalupa bat, geienak  
agori zirela; batzuek Getariarat, Donostiarat edo  
Pasuriat sartu beharko zutela ahal bazuten.

— Hori zen ziotena. — Eta egia zen. —

Heldu ziren chalupak bat bortzearen ondotik  
heldu ziren. Eta bakotchak bereak ezagutzean;  
Hemen heldu die Paulo-ta! Hemen datoz Jokhet-a,  
oyukoa gizon eta emazteak. Eta haurtxoek  
beritz, beren burasoak nasa-leihor ondoan  
agortzen zirenean, urte batez ikusi ezpaliitzte  
bezala, Aita! Aita! oyu egiten zioten indar  
giziek — Orrantzah unrikigarrick denak  
bustiak, nekatuak, ahulduak, chahutuak,  
indarrak galduak, goseak eta egarriak abantzu  
billak, etxutzen, ez ekarren gizonaren itxurik,  
bainan lurrion onak ezarrita laster, ongi  
erakusten zuten bere gizontasuna, haurrat  
berroten hartuta mugat-malko lodiekin arpegi  
biguna bustitzen zituztenean.

Ihundu arteranoko guzian eta ihunduta  
gero ere, arrantzacon esualdeaz bertzelek  
etzen nihor mintzatu Arranondon.

Bat salbu, bertze Chalupa guziak sartu  
edo etcheratu zeren.

Zardinzarren chalupa zen agertu etzen  
baKarra.

3

- II -  
Zor erranak.  
Errekante ta mundi Regal Zoko batean  
dilindan dagon erri Kochkor bat da que  
Arranondo. — Urtean dantzka sinak; aldatz  
handiak iri edo Karruetan. Karrika batetik  
bertzera, urtek legundukako harri malla batzuek;  
etcheak, batzuek bertzen gainean, gibeltso aldea  
lurpean sartua eta aintzinekoen tellatutik  
aurpegia erakusten; nehort uste ez lukan ana  
yende ~~etche~~ edo gizadi etche bakotchein,  
berrogoitahamarrerek goiti bethi, haurrak geienak  
eta leio zillo denetan atorrak eta goniak, galitzak  
eta prakak, itsas guzonen tsinuko irudimak eta  
ohiko milise churiak tzintzuika.

Irringarria dela herri hau, diote Kampotock,  
leioetan horren bertze trapu edo zapi dituelakotz.  
Bainan Arranondoeko emazte garbitzaletik  
ezdute bertze idortokirik atzematen ahal.  
Ez da inguru guzian alferrikako lurrik.

Herri tunen burualdetik ontsa lantuzkako  
torho, baratze eta sagardi batzuek agertzen dira,  
denak erne, sortu ta ari duten guzia herriaren  
ahorat esKaintka ba legozi bezala; behereko aldetik  
Chalupaz beteink dagon urhandia pasatu edo -

II

igaroazkeren amuzinako bertze mendianen  
indarran, echte-echtuak dagozim amuzilegiak  
edo itxasoaak bere goraldi-istan besoak zabaltzeko  
behar duen ondurtzea. Bertze lekukik ez da.

Herri hundako Karrika eritzia ta  
okerrutan itsas gizonen jostaleku edo arno-  
segiaiak nun diran bereala ohart ditake,  
deusik ez ikusirikan ere : aski da arrabots  
handiena umndik eldu den entzutea.

Aldordi guziedako sagarnotegi ta arnolegrak  
berdinak izaten dira. Sagarnolegra bainibade  
karukan beraean edo ~~haren matxa~~. Bresna  
zaharren gordetzeke gelatchu batean, beherean  
lurra, gainean amarauna, eta bi zuren gainean  
gupel batzuet : sagarnoa ona izan dadiela  
eta jantokiuk ez izanik ere, ez kechu.

Arinotegia bainibade main luze luze bat,  
maina bezin luze diran bi alki sahetzstan,  
zaragi bat edo bi bazter batean eta lurrezko  
pitscharmoko ta leiarrezko edanuntzi <sup>baserri</sup> balzuet,  
paretaren kontra josiak dagozim alase Zahar  
batean. Ezta geriago behar izaten.

Holako etche zilloetan Sartula egoten dira  
arrantzaleak neka-alci gogor aimatz i Billi  
ondoan, ukallondiak main wundaztatu Batzen

gainean, behar tabako behar garratx merkena errezi  
Keten eta oyuka beti. Holache zagozun  
Arranondokoak, erran dugun galerna edo ekai-  
tzaren atzaparretarakit ateratuta laster.

Eta gauza zakin : gau hartako solasak,  
bertze erran behar guziak ahanzirik, Lardizahar  
eta bere lagunen gainean zuen arnolegian  
sukaldetan bezala.

Gure arrantzaleak, arpegi beltzeke gizonak  
ezoku gogor ta hitz zaharrekoak izanik ere,  
guziz bihotz samuriekoak dira. Errantzuera  
edo erreputsta gaichto bat berdin ukabitikada  
bat nornahiri eta aise badakite ematen, bainan  
ere bai eskutan duten azkeneko ogi puskak.  
Nornahiekintzak zernahugatik asarretakoak dira  
berdin, bainan ordu edo memento gaichto  
ta larrietan, bihotz guziekin ta nornahiri  
laguntasuna eniaten ere badakite.

Echo! Mangolinio, zion main alde batetik  
bertzerat, gizon lodi batek bere lagun bat!

Nun ikusi dugue zuek Lardizaharren chalupa?

- Euk nihun ez, azkenean seuruk ; goizean  
gure ondotik ateratua da, bainan gero ezta-  
Kigu zoin alde yo duen. Esnepel'enak

ikusi omen du azkenekorik - Eñ

Eta hala LapiKotchu?

Nik eztut deusik ikusi, erantzun zuen  
LapiKotchu, Esnepelen chalupakoak.

Iphar aldetik heldu zen lehenbizikoan  
aizeak lehenbiziko "brastadea" arpegiam eman  
dankunean, "Ala munitak" oyu egin du gibe-  
lekoak, eta asi gara; bainan eztuque deuse-  
tarako astirik izan. Itsaso gizya hetzi da  
bereala eta hor etorrri gare gu, oker,  
zainkoak daki nola. Horrechek gure aurten go  
mabaziak. Bi ziarekin etorrri garenean, pozik,  
eta "Antigua"ko Amari eskerrik.

- Bai, bizia lehenik, jarraitu zuen bertziak.  
Gu hemen gare, echartu ibilbidean  
Sardinzaraienek zer egin duen eztakigu.

Getaria edo Donostiarra artu ez balibadu...

Edo Zokora joan badaa?....

Aoan pipa motz bat zozta zaunkan, eta am-  
bortz eguney bizarruk egon eztuen gozon zahar  
agure batek, aspaldiko dunda gapeluan  
jordea zabilkana, jo zuen Mangolinon ukal  
ondoren eta erran: Zokora? Uhm!!

Zertako ez? - Zertako? - Hartako. -

Begiratu zioten donek aguretochuari zerbait geiago  
erranan zuelakoan pipari tira-tira obeki  
pizten eta ke batzuek botatzen zituen bitar-  
tean; bainan berak nahi bezainbat pipa  
piztu zitzainean, changada bat arno  
edonta, gelditu zen agurea deus errateko gogorik  
gabe.

Mangolinotik ikusi zueman Txanagorri, deusei  
Kasurik egin gabe, bere pipa ilharri tiraka, Mielgari  
galde egin zion: Ze gizadi dorabil Sardinzarrek  
chalupan? - Gizadi ona, gazteri indartsua:  
Arnozuri, Gatzgabeko, Artobero, Kaitu, bere  
Seme Angel, eta enaiz denetaz orhoitzan;  
bainan emeretzi lagun, & gu bezala.  
Angel ere ba! Errrian den munitak zistzoena!  
Denetakoak: argia, ensaiatua, gizakoa, eta  
erramulari ona.

Ba, aita ore denbora batean. Guik lekeitiokoak  
zehim estropiada egin ginduenean, duela ogoita-  
malau urte, haren orramuen ibiltzeko manera!  
erran zuen Txanagorri, bigarrenean pipa  
piztuta. - Hitz horietan egin ziren arrantzalek  
luzer, leien lagunenak zer gesuratu ohi zitzaioten  
Kechu, eta Antigua. Ko Amari ohoitz eginez,  
lo egitera joan ziren ardean.

Horiak ziren Arranoudoko inkaldetan, zaharberritzen solasak. Bainan Zardiziarren etxean zen emazten bilkura ta erranbehar handiena. Oinar lagunenatzat aña zen izkaratzear, baziren berrogoi: gainekoak, leherkoak, auzokoak, audeak, izagunak ikusi es jakin-mahiakoak, Zardiziarren emazte urrikigarria consolatu nahiz; gizategian edo talan, eztakiet zenbat, eta inkaldetik salara zoan bame-bidean illuntasunaren ordian, ichillikako ichtorriak elkarri irratzen, bi neskatala Manasi ona, Txanagori zaharraren alaba, lirain, garbi ta ederra, eta bere betiko adikidile Josepa. — Migarrez & zagon Manasi.

Ichillik egon zaile, zion lagunak, ichillik, mork iKusten lazaia ere.

Eta zer zait norbaitik ikusi arren? Ez ahal da migar egitekooa, emeretziz gizon edor galzea? — Ba, oii ba. — Bainan batengatik migar egiten duzula isteko dute. Ala, mork ez ote daki Angelikin zerbait baduzula?

— Nolaq hori, nehorrek ez nahi-on-ta.

Zuk badagkitzu nere baitako gauza guztiak eta zuie densik erran etzaututanean —

- Angelik ere ez? — Angelik, haren mork bano gutiago. Bihi batitz bederen — Bihi izan dailea! — Ichillik, bihi ko da! — Zer nahi zinduen erran? — Bihi izan batitz, edo bihi bada, mork ez dekake jakin zet... — Ez... Eta noizkoa duzu zer hori? — Ezta kit muk noizkoa. Oiztoan izan da beti bihi, beti ikusidut burasoentzat aini ona eta zintzoa dela-ta; langilea, elizarakoa, eztia, eta ederra ere baita. Ederra ezta ba, jotepa? — Hala diote, herriko ~~ez~~ neskatcha guziek — Eta zer geiago? — Geiago, deus ez. Ikerketa nuinean, urus. — Eta geiago ikusko itzinduela niste izan duzunear, migar egin. Berak ez dantzu egundarri-deusik erran? — Guk elkarrekin hitz guti ibili dugu, eta holako gauzarik behin ore ez. Angelik etxario oraino gogoratu burasoak zaharrak dituelakoitz, beharre duela norbait etxerat ereman, eta guinerat, gogoratzengen zaiorean, ez dut nire gana etorriko den. Chalupa jabeak dira-ta. Guk, berritz, lautcha bat bertzerik ez dugu. — Bainan jaunkoak etxerat ekart dezala. Horiche nahi dut, ez dut bertzerik behar.

- Ez? - "Arimenak" ez du oraino jo eta  
elizako ateak ez diria historiak. Goazen elizarat  
eta jaunari othoitx on bana egin daio gun...  
- Han mintzen hunat etorri artean ere

Ahaltseko gogo handirik ez dut gaur izan.  
Goazen. - Etxeketo-andreari agur ildun bat  
egin-ta, joan ziren elizarat bi nezkatzetan.  
Jaunaren antzinean olio-argitche bat  
baseren piztua, Jondoni Peturen elizmair gainean  
bi chirio erretzen, illunetan besti elizalde gurzia.  
Olio-argiaren dihidrak jaunaren egon-toki  
apala erakusten zuen; bi chirioek, Jondoni Peturu  
eskutetan ziren urrez apainduriko gakuak  
argitzen zituzten bakarruk. Saindua etzen  
agiri.

"O Aita San Pedro nerea! asizen erraten  
Mañaki, bere artean - Urueko gakoak erakusten  
ditutzen, zeren ta lurrean jainkoak emanikako  
eskubidea dantazula erran nahi balute bezala.  
Erakutsi egungo gaur eskubide hori ezpela  
arimen onerako bakarruk, ezpada gorpu-  
tzaren osasunerako ere bai. Arrantzalea  
ginen zu ere, eta urrikal zaite gure arrantzalez  
ideki eikitxute nonbaiteko ateak." >

Eta gero, Ostia Saindua gardurik dagon tokira  
begiria, jarraitu zuen: >> O nore Jainko handia,  
gaizki egiten othe dut gizon batzuen bizitzearagatik  
zure othoitza? - O jauna, barka nezazu, eta egin  
bedi besti zure borondate saindua. >>  
Barne ta kampoko iluntzunean egon ziren  
gure bi gazteak elizan, ichil-ichillik, egita  
gabe, sainduak edo iduriak egiten diren bezala,  
eliza zaintzaleak, Arimena jo ta gero, ateak  
heter zituzten artean.

Elizpean, Mañaski belarrietan  
josepari: - Ez gero nihori deusik erran.

- Ez. Ez othe dugu elkar ezagutzen? —  
- Egia zion: ongi ezagutzen zuten biek elkar  
haur-haurretik, eta bat-bertziarentzat zer-  
nahi eginen zuten. Josepak etxean deusik  
erramen, etzen bildurrik. Lagan ona ta ichilla  
zen, harrotasunik gabekoa, bersteak barro azpil-  
dura ta kopeta gerichago izanik ere.

- Agurrik egintza, bakoitzka bere etxetako  
ta gero, itzuli zen Mañasi eta galdeatu zion  
Josepari - Zeinenak ziren Jondoni Peturen  
elizmair auritzinako bi argiak? — Bat  
Angelen amak ezarria, erantzun zion Josepakk.

- Eta bestea? — Beslea, mik. — Zuk? — Ba,  
ala uste duzu zuk bakarrik duzula zerbait  
galdua Gardinizarren chalupan? —  
Zen dabilla bada bertan? — Artobero —  
Ongi ichillik atchikia duzu.  
Ba eta zuk ere. "Berdin gare" errantza, etehe-  
alde arta zuten, irriz.

MañasiK : Entzuizu, estorriko dira?  
Jouspak, gelditu gabe: Bai, bihotzak  
hala dinost.

Surmam  
sobremesa

111

## Orartze bat eta Berri onak

Izengoiti sobera ematen ditutala uste badu irakurleak,  
jakin dezala lehenik, Arranondon eztela izen-  
goitirik ez duen familia bat ore.  
Handiek eta teknikiek, aberatsek eta langilek, denek  
badute berena.

Sortzez herriarrak diren familiek, izen goiti hori  
antziniek eratutik dakoite eta familiako guziak izen-  
goiti batekin ezagutuak izaten dire. Altari "Zalo-  
tchu" erraten badiote, Semea "Zalotchuren" Semea da,  
andrea "Zalotchuren" andrea, alaba "Zalotchuren" ataka,  
ezta geiago behar izaten. — Sekulan bataio  
harriak apiezak emanikako izena ongi erraten  
bazaio norbaiti, burasoen izengoitzia izanen da  
berean. Zalotchuren semeari emanikako izena  
joanes bada, joanes Talotchu erranen zao.

Kamptoko herrietatik Arranondorat datorren  
familiek han dauka bere izengaitxoa ogoitalean  
orenengan, eta eztu geiago bere garrantzak  
Kenduko — Nork eman dio? Niortz osoa hori  
garbuki jakin. Edo musikoko batek estorri-  
berriaren semeari eskolan, edo arrantzale batek  
senarrari elizpean, edo emazteki batek emaztean

plazan. — Zergalik? — Edozein gauzagatik; Edo lodi edo guria, edo argal mehe zatarra delakotz, ~~et~~ ongi apandua edo Prakazaharduna, azkarra edo ahula, argitua edo argizabea, holako ta halako arabatzidkoak, horroko edo hango caserri edo hirritik etxerritakoa. Mutikoari eman bazaio Prakazahar izena, familiako edo etchadiko buruari Prakazaharen alda erranen zaito. ~~ezagutzen~~ eran badiote "Monoker", Monokerren senarra, lehenbiziko izengoitia ezarri zaionak ematen du gero familia guztiari. Aín ongi dakte Arranondokoek gauza hori, eze, batzuek ez baitute ezagutzen beren buruen izena. Bazen bat beru aitarenan egin gogoratu zuena. Aitarenan gutik jakiten dute. Badakit fatur edo letracremale bat ibili dela egin argitutuik norentzat zen letra edo eskutitza bat. "Monsieur Julien Fragonni" zuen estalkian, eta Julien Fragonni zein zen ~~ez~~ etzakien mork. Uso-agure guztierei galde egun zioten, eta atso-agurek erantzun etzela herritarra izan behar. Oizkinean, apurz nausiarri esker, agertu zen letraron jabea. Zein izan behar ta, saguzaharra erraten zitzaión guzton tiki bat zen.

Jakin dezatela beaz <sup>orok</sup> Arranondon izengoitiak diuela nausi, eta horiek bakarrik.

Eta orai goaizen utzi dugum nere lanaren ariaren hartzerat.

Zardiñzarren chalupakoak Getarian sartu ziren, eta ongi zamduak zagozten, arras ongi.

Ikuhi ez duenak oztaki nola hartatuak diren, edozein herritan, eskuial-herrrian bada horri hori, itsaso ~~itz~~ i Karagarriarekin borroka ibilta gero, leyzorrerat datzen arrantzale anaiaak.

Leyorretil heldu badira itxasan beren buruak galduak ikuhi ondoan, han izaten dira lurru-koak, bakoitzak bere alderat arrantzale nekaitzak eraman nahiz, batek salda boroa, bertziak jaka lodi bat humek ohera churi garbia harenk su eder bat eskaniz, denek etchean dituztzen guztiak eman nahiz, anaia behartsuari ~~de~~ oro emaleko.

Herrirat sartze tzarra balibada eta nuanbateko arrantzaleak egin sartuz badabiltza, leyzorrekoak enotzaren atzaparretarik gizon batzuen bizia. Keutzeko, asmo in dartzuetan ateratzen dira chalupetan itsas-biderat, beren buruak --

galtzoko zorri txarrean doazila gogoratu gabe,  
 sartzen dira itsas barneat etcheak onako  
 tirain zuri handi batzuen arretik egin ahalak  
 egin, irristen handienen beldurrik gabe  
 haslen dira, gogor eta zintzo, mork erran  
 ez dezaketen lan zuzen eta goragarrirari buruz.  
 Ez da erralen ahal orduan zer esutasun  
 dantzen herriak begira dagozenek.

Ai nitx egoten dira itsasokoentzunen.

Denak, ahoa zabalik, hots jen hartuz, herriko  
 gizonik azkarrenak noiz i thoko ~~azkar~~ kotoen  
 beldurrez ta ikaraz. Eta, aurra, goazten  
 mulillak elkarri deztka, aurra jaunkoaren  
 izenean.

Izan da Eskual-herriko arrantzale bat Zamaiatarra,  
 Jose Maria Zubia deitzen zena, bana "Mari"  
 erraten ziotena. Arrantzale horri, ondoren erran  
 dutan bezalako gertaldi tzar batean Donostian  
 itzelzakotz, hiri eder hundako nautiek  
 egin zioten iduri edo "Hatu" bat, Donostiako  
 Kai gainean, "Mari"ren oroitzapentzat. —

Bana, Jose Maria Zubia deunek kendu gabe,  
 erran genozake haren gisako bertze bihotzduen  
 aintz badirela Eskual-Herrrian, gure itsas-

herritan gizonik ana bihotzduen badirala.  
 Getarian ez da behin ere sartze txarruk. Aita  
 Done Antonen menpean bethi izaten da yabal  
 edo bare, ~~eta~~ eta han egoten dira ardura  
 Kantaubriako chalupak eta ontzi handiehagoak  
 ere bai, itsasoari bere asarreak joan arte guzian,  
 esche barnean balirez bezala.

Goizeko bi orenetako Ankaluze ibiltaria Arra-  
 nondon zen, Zardinzarren etxearen atxoko jokoa,  
 gizonak Getarian sartu zirela eta ez Kechu  
 izateko erranez. Ezta aiphatu behar ere no-  
 lako pozarekin jakin zen berri hau Arrandon  
 Bide-lasterretatik ondo, nekatua ta loale  
 heldu zen Ankaluze, holakosako sortu zen gizon  
 azkarra. Bana ongi berotu zuten, su handi-  
 earen amitzinean jisterat eta edatrat omarta  
 Hiru liberako arraina, besquila, lauko oziaren  
 erdia ta pitxar bat arno bercalache 'iretsi  
 omen zituen, mintzatzetik gelditu gabe.  
 Ibiluraburreko sartu omen zen Getarian cha-  
 lupa hori.

- Ez dute kalterik ugaz? . Ez du mork minuk  
 hartz? galde egin zion uraino ikaretan zagon  
 Zardinzarren emazteak.

- Ez, Andrea, ez. Zafra da gogorren batzuek --

hartsu omen dituzte, chalupako tresna, jateko  
ta soniekoren batzuek galdu ere ba. Baño  
gizonak maturrik gabe etorri dira.

- Anjel ere ba?

- Nor da Anjel hori?

- Nore semea.

- Etxeira zu Zardinarren emaztea?

- Bai, baina semea ore badit hantche,  
chalupan. Mutil eder bat da eta ona multilla.

- Nik ez dakit denik, baño denak osasun onian  
izan behar dira. Oikateak erran daut neri.

Ankaluze, joanen zirea Arranondorano chalupa  
hemen dela eta beldurrik gabe egoteko erraterat?

- Eta bai erran diot, bai jauna; eta erran  
ta egin, bi perla jom ditut eta bideatzera lotu  
Burnietatik gora, Askizutikan barna.

Zumaiako ondoan egon behar izan dut leizaro  
ibaia edo ura paratzeko lantcharen Begira  
baño, hala ta ere, bi oren ta erdien buruko  
Iziar gainean mintzan.

Maiteuk altzatu artean Ankaluze, hauzotik  
emaztekiek inguratu zuten haren hitzen  
entzuteko. Mañasi ere han zen.  
Eguna argitu zenerako baxter guzietan --

zabaldu zen berri ona. Josepari Mañasaki ereman  
zior. Goizez nihun etzagotekin <sup>deunetako</sup> itsirkirik harts  
gabe, Aenorea baño lehenago, Josepari bere  
ganbaran edo logelan sartu zitzaiion, oraino  
bere lagun hau lotan zagolarunt.

- Josepa, Josepa, Getarian dira - erran zior.

- Nor? erantzun zior bertzeak, ongi irratxarta  
gabe.

- Zeiki zaite laster, erran behar aintz badugu-ta.  
Zer dira bada Artobororen ele honet?

- Ahalke gainera erratea.

- Etxare bada zu lotsakorra.

- Ez, baiman holaiko gauzak dienean... Eta zuk  
zertako ozdautaztu orran zurea?

- Nere hori egia nere barneko zer bat baizik.

- Eta zuri barneko zer hori, zertako ez duza  
agertu atzo artean. Eta atzo ere estu-estu  
izan ez baztine ~~ez~~, etzinuen hitz bat ere erranen.  
Hara bezaz, Lehenagoko batean, itsasotik  
leldu ~~zelosik~~, besiju bat eman daut Artoborok.

- Berizkerik ez?

- Eta gero, haren okabekoa etcherako ona  
mintzela-ta nuk nahi komuen, erran zautan.

- Eta zuk?

- Nik ez nion deusik erantzun.
- Baiman Done Petriari argia eman bai.
- Ezta bertzenik?
- Deusik geriago.
- Jeiki ta jantzi zait beaz arin arrina, eta goazen elizara eskerrak ematerat, gero mintzatuko gare guago.

16

## IV

### Garizumako egunetan.

Ora artean erran dutan guzia neguanen ordian gertarikoa da. Arrantzaleten lehizteza bethi izaten da neketsua, baina neguan nikoiz bano neketsuagoa. Negua pasatu edo igaro zen yada, udaberri gozoak bere arpegi garbi ederra erakutsi nahi ziren. Luzatu zen eguna, eta urdindu zera aldea. Eguzkia, geroago ta goizago, epeltasun lehizarni batekin, agertzen zen. Arranondo gaineko sagardiak eta Done Klararen zelaiia loren betheak ziren.

Errenterako baserritarrek beren lur ondoak ogi berdez betheak ikusten zituzten.

Chocho bilgorriak sasiorik sari zabilgaz. Ibaiko urak uhalde handiakoko zikinkeri guziak bazterrerat kendurik, garbi garbia erakusten zuten beren Kolko tamea.

Eta Chalupa guziak garbiturik ita tintaturik beren ferroak urdin churi edo gorriaz apainduak, antchoataarat joaiteko prestatuak zagozin.

Garizumako egunak ziren, antchoataarako ta kohesatzeko egunak.

Antchoa-alde harria urgainean ikusita, --

itxasorat begira dagozinek "Gorría Gorría"  
oyu egiten dutenean, Arramondoko sare-  
chahotzak zoin laster joaiteen diren aurainoa  
dagon ~~bat~~ tokurat!!!

Gero, bakotekak bere irabazteagatik,  
zainkoak daki zenbat astokeri, tzarkeri  
ez duten i bilgzen elgarren artean,  
harrika, berdin hragaka; gertatu omen da  
norbaiti burua hauostia ere.

Ene arrantzaleak ez dira joaiteen Kohetsatzerat  
"Gorrirak" bezain azkar, elizako ezkilek  
"dihin dihin" duzey jo eginikan ere. Bainan  
ez da nahi ez duitelakotz, ez eta ere Girostinoen  
ikastidea ez dakitelakotz. Elizkorrik dira,  
eta aitortzen dute Girostinoen ikastidea  
arras ona dela, urtean behin bederen  
behar direla eginbideak atxiki, denak  
ez ahanztek. Hala, nola gorputza echartu-  
echtua joaiteen dira Kohetsatzerat eta ~~ez~~  
aphezaren "Santifikat"-aren billa.

Hala ere, Arramondotar guziak joaiteen dira  
Pchartel, paper edo Santifikat hortarat,  
aintzineko zaharren ohidura on horni jarraituz  
estinalduen garbi guziek egon behar duten  
bezala. Eta joaiteen ez diren bakar batzuetan

edo dira motzak edo gogo ilunekoak edo  
beritzenez gaichtakerien bat egun duteenak. Eta  
gaichtakeri hori egin-ta, ez dute nahi aphez  
mausaren arpegia ikusi.

— Artobero etzen bera ham argia, ez eta ere  
gauzak ikasten errechitasun handikoa, Bainan  
barne onetka ta buraso begiratuen semea zen.  
Bazakizkien Girostinoak nahi edo ez jakin  
behar dituen gauza guziak, zerbaitei gerago ere.  
Itxasorat joaiteen etzen goiz batez, joan zen  
bere lagun batzuen gibelletik elizarat, eta  
elizako ateak, hara non Josepa bera ateratzeten  
den elizatik.

Begiratu zioten gaztek elgarri, eta Josepak  
bertze agurrik egon gabe,

- Echartela nahi duzu, galdezu zion Artoberoni
- Bai, bainan zut?...
- Nik badut bertzea. Aitarentzat dela.. ta,  
zuri emaiteko asmoan galdezu dut hori...  
halako besiguaren ordainez.

Geago deusik erran gabe, Josepak hartu zuen  
bere lidea ta musillat papera bere atzapar  
lodietan zaunkalarik, eta barneko bozkarioa  
ezin goidez:

- Josepa, oyu egin zion — Nik badakit hunk

Baietz ??  
 zer erran nahi duen. Baietz ??  
 & etxuen eoreputurik ukain, baino Astoberok,  
 papera gapelua edo boneta-egalean gorde-ta;  
 = "Segur, segura naiz, baitz erran nahi du"  
 zion bere baitan.

Hanek laster elhorri zen Asterik Handiena,  
 Asti Laindua, eta berekin barur egunak  
 eta eliz-jai edo eliz-pesta samurak .... eta  
 Apostolu, Beronika ta Fariseo, ~~jantxeko (oromano)~~  
 jantxeko egunak.

Asti Samdua ederronetarik izaten da bethi  
 Arranondoko ~~herru~~ herri fededunean: Eliz-pestatik  
 ikusgarriak, bertze tokia Achi Kietan egiten  
 eztrian bezalakoak. Bereziki hortzegun ta  
 hortziak Samduz elizatik ateratu-ta Karrikak  
 barna egiten den prosesionea, biziki jamatua  
 da, eta ingurutako gizon emazte arantz igan-  
 detako Soinekoak jauntzirik eta bide otehean  
 joaiten dira Arranondorat prosesione horren  
 ikerlekiko asmotan.

Hortzegun Samduz, arratsaldean ~~atxie~~ elizatik  
 Jesusen Nekaldi saminez orkoiitz eta  
 hien artean amairu arrantzaileak, bat  
 Jesus Bora, eta bertze hamabiak Jesusen

Apostoluak balira bezala. Hortziale Lainduz,  
 agertzen dira emaztekia Batzuak Jezus-al-Emgo  
 Alabak dirala...ta; lau edo fortze gizon  
 Erronako Soldaduaren idurian jauntzirik;  
 bertze bat, Herrian den hobena ahal bada,  
 Jezusen qisarat Kurutze handi bat sorbaldan  
 daramala; bertze bat Zireneko laguntzalea  
 bezala Kurutzeari lotua, eta eztakik ni  
 bertze zenbat gauza gogoragarri.

Eta zintzuruk hobeneko Apostoluek, eskua-  
 razko liburu bat eskuan Kanbatzen dutenean.  
 "Jesukristori Kenda ezkerro

Bekatuekin bizitza,  
 Baldin ezpadut nigar egiten  
 Harrizkoa dut bihotza."

Bertze Apostoluek eta herriar guztiak arima-  
 aumatik eta bihotzeko berotasmak arpegian  
 ageri dute lanik, erantzuten diote:

"Baldin ezpadut nigar egiten  
 Harrizkoa dut bihotza!"

- Arranondokoaren arabera Karrikako prosesionea  
 arras ederki egin zen ni aiotan urtean.  
 Jourpa ta Manantik bekarrik izan zuten zerbaik  
 erraleko.

Astobero apostolutzat eta Angel soldadu-

errromantziat ibili ziren, eta Josepat erran zion  
Manariu:

— Ikeri diruz gure Artobero? Ez da ongi  
jauntzia. Ni izan banitz haron & beztizteko,  
athorra hobeki kachatua izanen zuen eta  
zaiak ez hain harro.

Manarik berrixtz Joseparu;

— Eta Angel? Holako mutilla, Keldarreko  
hola arpegia beltztua---. Hori ez da ongi.

- V -

### Atseden orduak — Jostatzeko orenak

Buruilaren erdian gare. Arranondotarrak bi  
edo hiru illabetero atmetan ibillita, iriabarri  
poltitaretik oso horri dira etche aldera, ta  
beren itsasoko nekeak denak ahantzik, han  
dabilgaz choratuak geienak, herriko bestek  
emaitzen duten alegeratasunak ernaturik.  
Jaiak edo bestak nomahi dira jai, bainan  
nihon ez arrantzalen artean bezala.

Baserritarrek edo labararieki, beren herriko  
besta heldu deneako, behar guztiak bilduak  
izaten dituzte bethi. Chahal edo aratchen bat  
hil ez badute, besta amtzineko egurean  
herriko puoka ederrak erematen dituzte hara-  
gitegiak etchera; zoragi bat edo bi arno  
arnotegiak, bichtotcha zenbait ore pasti-  
zeniatik: <sup>(Bada)</sup> ez baita gure artean tripa  
bethetikada gabeko ~~herriko~~ besta omik.

Egun hori heldu denean Meza nausia  
entzun-ta laster, inguruétako aide, adikidre  
ta bazkaltiarrik, mahainen jartzen dienean,  
lotu mutillak jan edanari. Lehenik ogi  
churia, nahi aña; gero tripiña ~~herriko~~ cherrutik

odolki sukainka ta haragi egosiekkin, ondotik ~~te~~ errekia guipen handietan, arnoan ongi bustiak ito arte; eta eone-orriza gaina gozatua, leporaino ase arteraino. ~~ag~~gazen, mutillak -orukan dute- egunari berea eman behar zaiola. >>

Hola izaten da gienetan horriko besletoko bazkari luzea. Oskotan, mintza ta jan, jan ta mintza, aspetu gabe, ekuorditarik turu lauak artean, mahamian egoten dire. Bazkari horietan batezchak bere lagun, adikide edo ezaguneri egiten diote Comitua. "Etxori gero San Juanetan, edo San Pedroetan edo Andre Marietan gure etxerat, baskari on bat izanen duzue. >>

Arantzaleak baserritarra tano chuburkia gozi dura eta ez dute horrenbeste gauza etxera erematen; zeren, diru-aldia dutenean ere, ogi zornak kitotu ta galtza-palto achan batzuek epinezkero etxarote gauza handirik sakelten gelditzzen. Ez, ez dute diru aintzik izaten sekulan; baina ba, duten jukka hura laster erosten ta zabaltzen! Besta-egunen gozatzeko ere, ez da horiek bezalakoik.

Behar izaten ~~pasa~~ ~~izan behar~~ dituzte ~~itzasoen~~  
~~urisko~~ handiko lanetan, goiz-meza entzun-ta, bi ur changada edan-ta, berzerik gabe. Eta leiorrean direnean (eta leiorrean izaten dire bethi herruko besta nagusietako) orduan izaten <sup>da</sup> heien eguna. Arranondotarrek, mendi gainean, herrirat begira, herraren zaintzailea baita Ama ~~Mariaren~~ badaukate Ama Mariaren Saindu ~~edota~~ bat, bafeliza edo Kapera pollet-polletan ongi gordea. Biziki maitagarria da eta biziki maite dute arrantzalek; hura da heien artizarra, argia ta bozkarioa, heien bihotzeko Ama maite-maitena. Ama hunen besta izaten da Arranondoko egunk handiena, eta ~~besta~~ egun hortako, lur mugaz hurruren etatik ere, naiz viabazteko zerbaiz galdurik, arranondotar guziak tiltzen dire beren herrirat. Ikerlekoa izaten da orduan Arranondo. Bide ta karrikak garbi, etcheak churu, chimirri edo suburuak ketan, gizon eta emazteak, dituzten soinekorik hobekat jauntzirik, denak eliz-antz, Antiguako Andre Mariari eskanitzeko churiak eskuetan daramazkitela. Mendaroko edo Iparlekiko, opul-gozo edo bichkotx saltzaileak pilazan, eliz-ondean edo jende

guiena ibilti den tokietan jarriuta beren otharre  
izabalekin; eta herriko nebka multillak, heien  
begira, denak jan nahi balitzte bezala.  
Hamar orenetan, eztillak "dilin dolon" astor direnean,  
alduaten dire aphez gizonak baselizaruntz, ure  
zilharrezko apaundura ederrenak jauntzintzit,  
Ave Maria Stella ~~eztik~~ emanet. Aphezen  
aintzinean, ~~bi~~ binazko herro berdinetan  
jouaten diri arrantzaleak; aphezen ondotik,  
herriko buru edo Alkatea eta bortz Koutsei-  
lukoa gizonak; eta azkonean, musika gozoa  
joz, herriko sonulariak, Armonia de Arranondo  
erdaraaz ezarrria sedatzko oial eder baten gainean  
idurta Eskualdunen hizkuntza ez den bertze  
edozein mintzaina bezam garbia ta polita.  
Elizarat aphezak heldu orduko, ta Conseilukoen  
beren tokiek alkietan hartu orduko, bereala asten  
da meza. Eta ez gero usaiakoa.

Ande Maria eguneko, illabete oso batez ibiltzen dire  
meza berruen baten ikasten Arranondoko Kantari  
gizonak, Kampotkoen amitzinean zer bait badriela  
erakusleko gogoarekin bildurik, eta egia errateko,  
ongi erakusten dute urte gizonitz.  
Hitzaldi edo predikua berrixt hobentariak izaten da;

19

egun hortarazio ingurueta den hitz legun ta gañi -  
eneko apheza ekararazten dute. Izerdia uretan  
egoten dire, gierenak chutik, begi ta behariak erme,  
mezari begira, Kantarien oiuak eta predikariaren  
erranak entzuten.

- Multillak, - erraten dute, piperra baño gorriago  
eta burruko illeak chut-chutak elizatik ateratzear

- Hau ~~ja~~ <sup>zintzurrak</sup>, eztul bat ere ez du egin!  
Ez da galdetu Behariak nortaz mintzo diren,  
denek badakite Kanpotik ekarritako predika-  
riaz dela.

- Badauka jakin, orrenberzeta gauza buruan  
atxikitzeke.

- Eta eztul bat ere, gizona, eztul bat ere ez du egin.  
Hau izaten da gauzarik hobena Arranondoko  
predikaria izateko: eztulik ez egin behar.

Baserritarrek berrixt : A! zer soñu ederrak  
jo dituzten! hori izaten da heien lehenbiziko  
erran beharra.

Elizkitzuna akabatu ondoan, mutikoak lasterkia  
lotii guzietan bezala, omagteak buruko oial bel-  
tzetan lantzen, gizonak taketa baño gogorrakoko  
atzamarren artean zigarro bat eginez, denak  
jausien diri arranondatarrak beren etxetara.

Etchean besti gelditzen da nor bait meza ~~gabo~~  
nagusira gabe, etcheko-andrea gelonetan,

sukaldoko ttipin-lapikoari begira, eta elizatik heldu direnek, mahain-oyal churia zabaldua, ogi hondi bat & regal batean, arno jutxarra ogiaren ondwan edo lurrean, eta burdinozko lauhotzkoak eta kllerak, mahamaren inguruan ezarriak atxemanen dituzte. Jarrizta jan bertzerik ez dute, bada, izaten. Batek ogia pikatzen du, bertzeak arnoa ematen, ogi puskak arriz-aire doazi, eta basoak edo edanontzak eskuak estura. Ez da nihor kechatzen bere sahetsko lagun jale-lagunez. Bada, esku mu-arrarekin eztainak igortzi ezkerro, gabitik doa gauza.

Eta holache, Janez eta edanez, irri-barnez, eta ichtorri zahar batzuek elgarri orhoitaraziz, joaiten zaizkote Arranondoiko arrantzalei atsedeneke oren zorionekoak, Baserritarren berenetan joaiten zaizkoten bezala.

Bainan, lehen ire erran dut, batzuetarik bertze-hara bada lehia desberdinatasun handia.

Itoas-herrukoek, gutiago jan-ta ere, geroago jan dutela erran lezakete. Hantien mihia, berriki holako bestetan, Baserritarrena bano azkarra goa izaten da, ausartagoa, begirada

20  
garbiagoa, handiagoa eman-nahia, sakonagoa barneko alegeratasuna; Eman ahalakoa ateratzet, diote besta-egunari, berek dioten bezala.

Baserritarrek edo laborariak patchada gela-go-korak dire jaten, edaten eta mintzatzen; ez dire hain ausartak, ez dute iduri hain argituak, ez ere hain emankorrak, astrotan argitutuagoak eta emankorragoak izanik ere. Bainan denek elgar aditzetan dute eta adikidetasun onean igarotzen dituzte oren luzeak.

~~Oren horretan~~, luze joariten dire gaztentzat, zeren gaztek mahanean bano karrikako sorn etabestetean dantxate beren gogora. Jokoek eta jostetek bi arpegi baditzute gutienez: gazte-rientzat, gozo, bigun, maitegarrizko, dindira, bethi kenuka ta deiezka hari zaronia; Zaharra-rentzat, espel, motel, Kanoregabekoa. Zaharrek josteta bano nahiago dute arno ona. Lagunen artean egoteko badakite ardura jostetaren deadar zoro irungarriari entzungogor egiten. Luze idurita zitzaien Mañasi eguerditarik eta hiruak eta erdietako bitartea Arranondoiko Andre-Mariaren besta egunean. Etzen Mañasi burn arina, etzen ibilkaria, serioza zen, --

Kanoreduna, zentzu handikoa; baina gatztea, eta gazteak, Kanpoko josteten arrabotsa beharritar at heldu zaiotanen, barneko oldarren bat edo arimako irakitzeko bihi gozoren bat izaten du eta ezin diteke orduan geldruik egon.

Bazkaltiarrak zutuzten etchean, eta heiekin dentsiora pichka bat galdu zuen, eta gero, etchetik yalgi bono lehenago, ontiak tokiratu nahi, ezkaratza garbitu nahi; illeri hundia aldi bat eman estuak ongi tchukindu ~~nabi~~ eta jauntzi berria ezarri behar hantzan ta hartan lutzatu egin zitzaien. Bere lanetan zabillen artean, esku bustrak taulicream gordeak edo erkatza bazter batean utzruk, hamar bat aldiz atera zuen leiotik burua zemanhien gatik bethi leorat, eta bethi gogamen bat bilbuan. "Ez da oraino Angel etchetik ateratu". Eta zer behaz zuen ba Angelena qanik?

Denauk ez, baina..., horche baita.

Soineko berria jauntzi ta gero, paparnuan ideazko zapifular urdin srollit bat ikatilin-bazen hari zelarik, ethorri zitzaien oin ka Josepa laguna.

- Zer harri zare bada, gaur bezperetara gabe??

- Ez daki zu bada bazkaltiarrak baitugula?

Bai, baina denetako har ditake astea.

Hutz handia egin duzu. Gaur kontatu duten Magnificat-ik... Zer bozak!

Oi! (paparoko edo lepoko orratzari begiraka):

Noiz ~~kaga~~ duzu hori?

Tortu ondoko plazan, "tutulu mundin" ondwan den saltzalea oker bati erosia diot.

- Ongi pollita da. Zenbatean erosio duzu?

Bi errealetan (edo hamar Sestan).

Orduan hau ere ez da aintzir gela gokoaa - erran zion Josepatik estua Nanasuri begien aintzinean eman-ta.

Ereztuna! - Nori erosi diozu?

Nik ez dut erosio

Nork bada?

Artoberotik.

Ataren, Semearen...

Eta bi lagunak joan ziren portu aldera.

VI

Bertze atseden orenak

Berriz erraten dut bizi ki eder ta maitagarria zela Mañasi. Ille beltz ugari ta ongi orraztua zuen, bekotik edo kopeta zabal leguna, larru churi garbia; begiak ezti garbi ta argitsuak, aho lehika bizi ki politiki hetsia, eta gorputz liram bihurkor, ez mehe ez gizena. Bertze alde, gure neskatcha hau horuko eskolan zerbaitek ikasia zen, arima argidun eta bihotz beroaren jabea; admendu oneko emaztekia, apala, zintzoa, hitzekoa, ixtilla eta baketsua. Biltz batez erraseko, jowregi batcan sortua iduri zuen eta ez arrantzaile arrunt batzen alaba.

Josepa Añiki ta lodiehagoa zen, beltzarana, ernea, fin batean berekoria, herriarrekin ausar-hatxkoak; noizean berin, arrain ~~galtzaliak~~ etxeko oso ospindu batzuek egiten bazakirikien.

Mañasi bezala, multilen amitzinean ahalgetzia, baina emazten artean gizon iduria.

~~A haurrak euskarriak ean portu, les dama amies ne parant pas y haurra de pilarcas.~~

Bil lagunak joan ziron portu aldera. Ibaizoa gora-gora zen; eguzki beroa ur bizien gainean

dividiorast, eta zubi zahar ta berria gizon ta. emazteg beteak zapozin, ibaiaren alde bailetek bertzera. Chalupetan muliko kozkorratx jostetan, taula-choko batean tan bolina ta "Armonia de Arranondo" bakotcha bere ~~acha~~ indan sonuka; ibaiaren erdi inguruau bi sarechalupe itsas-aingira bezalakoak, eta hautien barnean, ahorra churi garbiak, garbien azpitik paparo legunak ~~estakatu~~ ageri, Arranondoko mulil gazte azkarrenak, erramuan estuetan, zoin-lehenka asteko manamenduaren begira.

Egun hartako estropadea edo zain-lehenkakoa arrundenetarik eta laburra izan zen, viabazi gutikoa. Herriak zoragi bat arno emon zuelakoak, usnia zaharrak etxirakotz galdu behar, azkeneko indar-neurtez ~~etxen~~ galdu izan arren, oraino buzirela Arranondon gizon Kapableak erakustera emateko, gaztek beren artean egin zuten baitzepadako zoin-lehenkakoa.

Bertze herri batekoekin berriz jokatzen zirenean, orduan izanen ziren kontuak! ziotenez.

Mañask etzuen galdu ere zoinet viabazi zuen estropadea. Ez aiderik ez adikididek etzuen hango chalupetan. Batera ta bertzera begira ibili zen chalupen harat-hunatex.

irau zuten arte guzian, zerbaite edo norbait begietkin jo natu izan, bali bezala. Eta nahi zuona etzuen atzemana.

- Goazen hemendik plazara - erran zion Joseparru, jendea banakatzen asi baino lehen - eta plazara joan ziren biak.

Plaza, emazte ta gizon gaztez bereala bete zion, tanbilma aintzinean ethorri zuen estropadako mutillak, batzuek bertzeri eskuak atxikituz, "aurreko" dantzaatzeko. Matilekin, herriko mutillak zabaldu zituen bazterrak bereala, eta asi zeren "aurreko". Eta asi orduko:

- Homen ere ez gare ongi - erran zuen horritz manasik.

- Zer gaitik ez?

- Ez dugu ikusten zem den aurreko kalaria?

Ba, nere.. zera.

- Ba, zure Artoberoek egorriko ditu lagunak zuie billa, eta zu alera ezkerro, ni ateratzea ere gerta hitake, eta ni ez naziz gaur hortarako.

- Zuk nahi duguna egiten dugu. Nik ere, herri guzikiko begiradak nere gainean ditutalarik, plazan aente egoteko gogoruk ez ditu saindu bat bainitz bezala, eta goazen nahi dugun tokira.

Bainan, Mañasi, gogoa illum dugu zuk gaur: zerbaite badarabilzu zuk hori Batmean.

Angel nihondik ageri ezdelakotz othe da guzia?

- Ez, bada.

- Ezetz, neu.

Harrigarria zen Angel halako mutil gazte sasoiakoa arratsalde hartan nihondik ez agertzea. Gorrizan ikus zuten, meza nagusian, ederkiz betzi, gaitza mutilla; mesa nagusitik aterata la, Karrikan heldu zelarik ongi begiratu zioten bi begi beltz edurek. Bainan arratsaldean etzuen miota ikusi. Non eta norekin othe zabal lan?

Badakit nik eta erranen dut ichilek atxiki behar den gauza ez denezkero. Markina aldeko aide batzuek bazkaldu zuten Angelen etchean; aide horiekin egon zen lantcha batean estropadaren ikusten herrikik urrunchago, multikek herri alde itzuli behar zuten tokian. Etzuen batore orduan gogoan, tura ikusten etzuelakotz, plazan bihotza illundua bazagola norbait.

Eta norbaiti bitxi bazaio Angelak herriko bestetan bere burua ez erakustea, jakin dezala, itsaso herrietan ere ez direla gizon guziak aizendum, zailuk edo buru arinakoak, eta badiela ere zeztzudun

eta behar den bezalako gizonak.  
Angel, itsa herritarra izanikam ere, mutil buru-  
tsoa zen, gazte zaharra, burasoén monean  
urus egona, lotsgabekeria zer zen etzakien  
gizena matilla, amgeruatu bezin ona, balena  
bezten indartoua, erramulari azkarra.

Etzakien josteketarak iges egiten, baina "tuntun"  
edo "tanbulinam" etzen trabe bere zangoetkin.

Nahiago izaten zuen erramuetan edo pilotan  
jokatu, eta "aurreko kota" bano gozontasuna era-  
kusteko bertze edozein jokotan ibili.

Etzuen batere plazan zereginik eta zer  
ikusitik, eta etzen joan plazara: ongi  
zabilan, zabilan Atxian.

Arranoudoko bestetan, bertze totitan bezala, bil-  
tzend <sup>da</sup> aintz plazan. Saretan harruak  
baliez bezala han dabeltz goiti behitu gizon  
ta emazpeak, zaldintz + antxoak <sup>adur</sup>, itsas - urde  
ta guziekin, ~~betetze~~.

Mariar ta Josepa, sarez kanpo beren harat huna-  
totan aspertu zirenean, ez killak "Ave Mariakoak"  
jo zituen, eta gure neskatchek Ama Mariari  
orhotz eginez hartu zuten Acherako bidea.

Elgarri agur egin bano lehenago

- Ateratuko zare gero suak ikuskeria? galde-

egun zion Josepak lagunari.

— Ni ez, — Marasik — gure etchean, badakigu,  
ez dute nahi izaten gauaz etchetik ateratzea.

Bertze alde, nahiko su ta gar badankat  
mitx barnean.

Gogoa illun ta atsokebez betea sartu zen  
etchean Marasi. Zertako? — Berak ere etzuen  
errechik erronan zertako.

Antzineko gauean egun zuen ametsa: biarru-  
nean besta handia zela, hau ta hura ikusiko  
zituela, bozkario-zenbait egun horrek etak  
rik ziola. Zer mundik eta nola? gauza  
garbiak etzitzaien gororatu. Baina, zena zen,  
aunamako atzeigm handi bat izanen zuen,  
bere ustez; bihotzaren bete bozkario.

Eta, besta edo jaia pasatuta gero, bhotza gose  
joan etchera, gose handia goan.

Aintz nahi ateratzean eta hutsik itzuli.  
Norri etzaio holako gauzaren bat gertatu  
bere bizian?



## VII

## - Lehengo Bidetik -

Herri txikiestako jaiak hiru egun irauten dute. Baña bigarren egunean yada, lehenbizikoan baño auritz motelago eta hotzaganizten. Elizan etzen gauza berri handorik izan; Kanpoko ezagun, aide eta adihkide geronek alde egin zuten boren herrietara, herriar mutil auritz, bezperako jan-edanek eta lo eskasak akulturik, biziki motel ziren; emaztekiak ez ham edorki apainduak; gizonik langillenak asu ziren bere zereginetan. Jazteak eta edarizaleak azkar zagozan oraino, hiru egunak pasatu artean, goizeko hamarrak aldean, ateratu ziren "Salinak" egitera. Othorra ta galta churi, eta gerruko ta boneta gorriekin, tanbolina antzirean, hamasei mutil ziren; hauskien orduram, zaiak zahar ~~batzuetan~~ urringarrizko batzuek jauntziak, eta bisaria Kel-darriez belztuak, bi gizon, lepoan bi zaragi etkin, ~~aspektuak~~ zozin.

Ongi iduritzen zitzaiten tokietan geldituz, artxorraren bezala zabiltzan, artxorrako antzuurrekin, tuntunak emaiten zuen neurruan, jiotzen zuten bidea edo Karrika, eta azkenean, antzur giderrarekin

Zarta ederrak emaiten ziozkaten erdiko Zaragiduneri, Zaragien gamean. Erom gabe doa zarageak aizetz puzziak zirela. Gizonen ondotik joxosten ziren meska-mubillak eresi zahar ta zentzu gabeko hau Kantonaz:

"Salinetatik elhoruko da, gure eskola maizhoa; Ai Salina, Salina, Salina. Ai Salina gaizhoa." Holache ibili ziren Karrikaz-Karrika eguerdi arte. Arrataldean antzara jokoa, antzarari lepoa moytea zuten, "Baian; eta gero "arreku" dantza urringarriz bat gizon zahar choro eta Kanore gateko atso batzuen artean,

Hirugarren egunean besta itzurariak etzuen herriak: pilota jokoa izan zen ikuzagarriena. "Tintunera etzen mihor joan.

Pasatu edo igaro ziren bada Arranondoko jaiak. Astekik ez kil-ots eta Kaleko sonuekin bizi-tasun handia ekarriz zuten; Baña laugarraren egunerako, miork etzisten Kasurik egiten; eta tintun edo berze sonurik gabe, ichil-ichillik, ahalge baliabegozala, joan ziren berriñ denak beren bidetan barma. On da josteta, ona denean, gizonari hats harrarazteko. Baña bethiko ez da ona. Arranondotarrek lanetik

behar dut bihi gizagaichuek eta ez dezakote  
jason luazaz jostekaren akidura.  
Asi ziren lehengoa bideetik. Eta zoin  
zabala den itsasotako bidea, eta zoin larri ta  
kechu ibiltzen diren bide horietan arrantzaleak!  
Ekaitza edo galerna donean, goibel ta ilun  
izaten da zeraua, edo beltza, eta eta izi-  
garruko chimistekin; eta ur gaina beru  
bihi, ibilkor, indartsu ta itotzalea.

Egunaldi ona donean, eder ta izartuoa goi-aldea  
gauaz; eguzkiaren inhar sutsuetan itsas-gain  
guzia ikusgarriki zilhartua, egunaz.  
Bona bethi da handi ta belduragarria itsasoa  
bethi gizonak bere burua aurkitzen du argal  
edo flako itsasoko zabaltasun ahulgarriaren  
alboan.

Bana arrantzalek badakite, han itsasoaren barnean  
dagola heien ta etxeko guzten janaria.  
Oyu egiten diote goizean goiz, gauerditik laster;  
jekutzen dia bereala. jaunzten ditu gizarteko  
soñkoak euria bada; hartzen dute besopean  
otharretchu bat arraina biltzeko bresnetkin  
ta jakti suxtka batetkin, eta badoazi beren  
tan-tokitara. Eta han, euria bada, bostitzen,

haize hotza bada, gogortzen, edo eguzki beroa  
bada KitzKaltzen, hauritz oren legon ondoan,  
etxerera heldu direnean, heldu dire; zerbaite  
ekartzen badute, ekartzen dute. Bada, ezta  
gauza segura bethi gibelara ethortzea, eta  
arraina ekartzea gutiago.

Bestak igaro ta, itsasoa jom ziren ~~ez~~ lehen  
egunean heldu ziren Arranondatarrak etxeruntz,  
arratsalde erdi inguruoa. Garbi garbitzen  
zeraua, bare bane ta baketu, ur zelai eder-ederra.

Uhartzean, zera ta itsasoa elkartzen dinen  
atxian, ohial churi batzuet agertu ziren, hemen,  
han eta haracheago txiki polliko banakatuak;  
denak berdinak izan arren, batzuet handi ta  
beritzek txiki ichu zuten;egalak zabalduak,  
pratzada ederrean heldu ziren leiorreruntz  
chori edo egazti tropa iduri. Geroago, negal  
churien azpiari, chalupak an ziren agertzen.

Etcherago ta aurrago, elgarren ondotik heldu ziren  
denak beren gibelan erreesta churi luze bilur  
bat utziz; eta azkenean, noiz bait bederon, cha-  
lupetako gizonen arpegi beltzaranak ezagutu  
ziren garbiki.

Bertze nihortz bano lehenago ezagutu zi tutzen  
gizonak eta chalupak arranondoko mutil Kochkorrek.

Han zabiltzan, eskolara gabe, batzuek ikuskirietan, bertze batzuek urean jibetean, zangarretaruk goiti ezañikako pantalon edo galtza zahar barnearak bustiak; bat edo bertze, urtek goratzean etxartzen dituzten itxas. Botatun - ka, geionak ur bazterean edo ondarrean etxanik, sondeko bustiak etehera banu lehenago idortu nahi zituztenean, denak ortutsoik eta mukia darotela.

Chalupak urbil agertu orduko, ez-ta-bai-ean asi zireni mukikoak.

- Lehena, Mozkorrondorena da, -batek -

- Ez, -bertzeak -

- Ba. - Nik ezagutzen dut.

- Zortauk? -

- Bela-nauseko izarrerak.

- Gezura: harrek oztu izarrak ...

Eztabada horietan hain zielarik mukikoak. Sartu zen lasterka playa edo ondarreira mukikotxu ~~est~~ bilo gorri arpegi zunidun bat, paper ta liburuendako zakhua leporik alindan, irrumendik oyuka, bertzeg hartuko zitzuten zafradez aintzinetik alegoriaturik; eta sudur azpiarau zaukan mukian zuzuape aldi <sup>gorti</sup> alde egin. Ta lehen bigizkoak atxeman zuenari erran zion:

«Echo! - Maiztuak edo errientak anholatuko gauzte, eskolara gabe zuek.

- Ostikoz ipuridian jotzen bazaitut - boitzek erre - postu - : lehen ore sudurra hautria izan duzu gero.

- Erron behar ta egin behar guziak hutsiak, inguratu zuten eskolalik heldu zen hori, itsas ondoan zabiltzan mukiko guziek. Bada nahi baitzuten jakin eskolan zer pasatu oteke zen.

- Zer erran du, zer erran du Bizardinak? - galdeztu zioien - Izenik hartu du?

- Ba, izenak hartu ditu, eta erran du behar dantzan hari beharko ~~zintzela~~ duzuela.

- Ni ez naiz joanen, batek,

- Ni ere ez, -bertzeak ... eta bertzeak... - Lehenago ere ederrak hartuak baizitzutenean.

Bana beren baitan bazuten bertze gauza bat. Bazakiten lehengo lehendik asi behar zela eta amaren aitzinean joan beharko ~~zintzela~~ eskolako ateraino, ~~zerentz~~ burasoeck itandu-ta, jakinen zuten beren haurrak non ibilli ziren, eta zafraaldi bona hartu-ta joan beharko.

Hau gogoratu zitzaconean, lehen bigizkoak erran zuen:

- Gure amari zorbait erraten badio Kokin-tehar, berriketari batek bereak hartuko ditu.

- Eta mi, -bertzeak, erruentak funkitzen banau, bizarrak ateratuko.

- Ederki, - erantzun zuen mukiko ille-gorridunak, bertze zuzuape bat egink.

## - VIII - Arrain Saltzaleak -

Arrantza pollita eginitik, chalupak herrira sartu zireneko, han zagozen Kaa gauean emaztekuak. Heien lana da Arranondon seurit, arraina chalupetarik atera, garbi ta gazitzea, tchukia salinbada. (Zardiria eta antehoa). Hondua donean / besigu, legatz edo atuna, gienetan) saltokira errematen ~~dute~~ dute, zeret ~~ekartzen~~ chalupa guzick ekartzen duten arraina batean saltzen diote mandazainari.

Emaztek behar dute, gainera, Kampoko harriztara egortzeko lantegiek eroi duten arraina ohoion erre ta dupseltchuetan trenpan eizaru.

Azkenik, heien lana da ere, herrian ta inguruetan jateko behar dena Karrikaz-Karrika Saltzea.

Hiri mototako saltzaleak ezagutzen ditut; Chalupa jabilen emazteak, emazte ichul ta onak gienetan; chalupetek ~~tchukia~~ ekartzen duten arrain tchukia, erre edo egosi gabe luzez ezin egon don arrama, herrian berean Karrikaz-Karrika Saltzen dutenak; eta, bertzeru erosita, hauzoetako herri-estra ahal den arrain mota guzira, errematen dutenak: Azkeneko hauk astodunak ditzentz die,

astoekin doatzilakotz herriz-herru.

Astodunak ziron Tramana ta Brix edo hobeki errateko, asto-jabeak; langileak biak eta bihotz onekoak, baina haur-haurretak bat bortzaren etxaiak, edo etxoi bezala bihi zirenak, eztena bano miki zorrotzagokoak, ahora heldu zizaioten itsuskeria normatiboa erran behar zietenak, atzaparretik lotzeko bethi prest zirenak.

Hauk ziren emazte Kalapulari guzien buru ta magusia; Kalapitan haritza zen beren atbegina; Kaa biltzen zirenen artean gogorrenak eta gaichtoenak izaitza beren harrotasuna. Egia edo gezurra erran, berdin zizaiotzen; gezurrak etxitan ahalgearazten, zeret oyu handiena egiten zuenak edo atzaparruk azkarrenak zituenak irabazten zuen parbida edo auzia. Bethi deatarka eta garrisian, hitz itsusienak ateratzen zituzten asarretzen zirenean. Izkustekoak ziren heine gorputz, buru ta ezkuon jestuak.

Oripatu dutan egun hantzan ere, ezdeus batzen gaitik asti ziren, eta gainkoak daki nola finitu zuten asarrealdia, zintzuurrak hetsi ta bozak ta indarratik lurkatu zitzaiatzkotenean.

Otarrekara bat atunekin heldu zelarik, kaa gauean

Zagozen emazten ardetik pasatzean zirkada bat eman zion otharrearekin Brix-ek Tramanari, uste gabe edo nahi ez, hori eztakigu. Eramanak burua itzaltzearekin, ikusi zuen bere Kontraria, eta asi zitzaion:

Nor dugu hau, horren bertsge leku behar duena? Erengin zenbait dela uste du, eta Brix sorgin bat bertzenik ez da.

Eramanaren elke garratza entzum orduko, utzi zuen Brix-ek buruan bora otharrea, ezarri zituen bi estuak gerrian, eta ingurutako ohi begira, burua ingituz, erran zuen!

- Hara, hara, gaur ere, nola astend den kaskomotz, zikin, ordi hori.

Eta pernentean, jarrainki zuen:

- Errazu, Eramata zabala, atso ipurdi handia, zoin sorgirtegi edo akelarretan ikusi nauzu ni? Zu izanen zinen akelarrean, zu. Baina, mozkortuta, ez bide dituzu eragantu, zuk, zurekin zabiltzanak.

- Mozkorra, m? Zerekin mozkortua? Zuri atzo taulari azpitik Karrukan erori zaitzun botilekoarekin?

- Ze, zer? Neri botola erau zaitela atzo Karrukan? Gezurra diozu, kiotil, zantza,

zerri, urde zorratsu, lotzagabe zikina.

- Min egiten dantzun egia, min? Alferretan ukaluko duzu ba, Marikontzek ere ikusi zintuen -ta.

- Marikontze ergel, begi-makur, petralari eta zuu, bien, aurpegiko larrua kenduko dantzuet nik nere atzaparrekin, bodia duzue bana berdin du.

- Zuk? Ai, ai, ai! Etxazula akantz gero, buruan zorunrik ez baduzu, azken aldian nik emamikako zafradak kenduak igan zirela zuri bartzak.

- Zuk Kenduak neri bartzak. Nori buruan eztaratzik. Burua garbi daukat nik, Eramana; zuk, zital zikina, egundaino zuen biziaren igan ez dugun bario garbiaago.

- Zekin garbitua? Txantonetik ekarri duzu aquarentzarekin? Hobeki iginen zinuon begietako makarrak garbitzea.

- Zaudet iñulik, emazte ustez gospeak bila. Zorazi nere artzinotik, Bertza...

Brixen ta Eramanaren hitz itxasietarik lau-taruk bat ez dut ezarri hemen. Herritar guzonek beron chalupetako lanetan, deuseuri Kasunik egin gabe segitu zuten. Berrikova baizken! Bertze batzuetk izan bailetz, bana Eramana ta Brix... Ba!

Saldun ziren arrainak. Astodunek erosi zituzten parte batzuek; mandazaneak gehiago; eta ondarrak lantegietako gelditu ziren. Bakotzak artu zituen berak; astodunek ezarri zituzten berenak asto bakotchen gainean bira otharre. Eta harri, harri! aimitz ibili beharrak baitziren. Arranondoko astodunek fama handikoak dire. Asto bizkorrenetikin, bethi oinez oron luzeztako bidean, nahiz uda naiz negu, guenetan gauaz, mihorren beldurrik gabe, hain laster Arrateko, Iziarko edo Antiguako Amari othortz eginez, eta bethi elgarretikin Kalaputan; hiruetan sartzean, ~~esa~~ alegora eta erasian, Kanta zahar edo berriak ederki emanez, lotan dagozinak atxararteraino, gauaz bada; eta eguna ~~argitu~~ ezkerro, arrain ederrak eta merke! luze eta garbiki oyn eginez, beharri elkorrenere entzun arazi artio. Zortzi, hamar, amasei asto beren ambizinean, han doazi Arranondoko arrain. Taldeak goikerrialdeko lekuetara, itxas-kostako azkartasuna, oyua, bai eta gatz-alde lodia ere, karrika eta lide guzietan zabalduz. Ameka aldi, Markina eta Duiwangon edo Elgoibar, Eibar, Mondragon eta Oñatin, entzun dituzte

30

Arranondoko astodunen hitz itsusi ta latzak, baita ere heien Kanta ozti ta ederrak.


Ameka aldi, entzun dut nik, arrantzaleak lotara doazinean, iluntzekeko aize gozoak Arranondo-raimo ekarzten duen holako Kanta politika:

"Itxasoaak urak handi, Ezdu ondorik ageri:

Tasa mintzake handik, Maitea ikuslea qatik ~~ekox~~ sekulan, Kanta han entzun ondoan, norbaitek ~~galdetzen~~ balioket astodunari maiterik ~~badaukatu~~ laster izanen du holatuko erantzun zorroza:

- Huma gure mutur beltza, maiterik ~~badaukagu~~, dio. Bai, Cost, zu bano mutil hobeaik eta maitagauia goaik.





N° 2124  
Marque déposée

Pierre ARBURU

2

L'AVENIR



CAHIER

de

Appartenant à

Gure Gazteak

Ez ditut ahantziak Angel eta Manasi. Bai  
zer, ahantziak! Huma heion berri batzuek.  
Itxasora joauterik izan otsen goiz batez,  
Angel, chipiro-harposinat egiten hari zelarik,  
bere ama Tomasa Handia, etcheko lanetan  
zabillan bitartean erranzion: zahartua  
zela-ta lan amitz egina, nekatua eta osasunca  
ire galduchea; eta on izanen litzatzekela etxera  
andrie gazte bateneKartzea.

Angel hirriz gelditu zitzaiion, dentsik erantzun gabe.  
Eta amak jarraitu zuen:

Zure bikotzeko atean ez du oraino mork deitu,  
eta hortakotz ez diozu oraino mihuri Kasurik  
egin. Bañan zerbaite egiteko sasoiñean edo  
garaiom zare eta nik begiztatu dut gure-  
tzat ongi litaken nestatcha gazte bat.

Angulek burua altzatuta, begirada Gabetikim,  
zorn da? galdezu zion amari.

Eta huneak, bereala:

- Antoni Errota da, - erranzion - Mari Errotaren  
alaba batarra.

Angelek makurtu zuen burua bere harpainera, eta amak etzuen ezaugu nola semeak hartu zuen berria.

Eta jarraitu zuen, berak hautatuiko nezkatcha hori zion egokia zen hobeki erakusteko;

- Bere bizikoa duzu Antoni hori bizi ki lan-gilea, gauzak ongi antolatzen dakiola, eta aberatua ganera. Jadanik Antoniren amak berrehun "diskata" ekarri zituen Artolatik, orduan orai baño ure geiago baitzen; baitak ere, irabazibide onak izan ditu atunetan, eta bere bi chalupa handiekem dira aintz bildu du urte batzuetan. Etxe-bizitzea ere ez dute horiek notanahizkoa. Egini nezake horri guzian hoberik ez direla bertze lan.

Hango arraza ohuria, hango alave ederrak, hango jantzu berriak eta hango burdinezko le-mahainetan dituzten ohe garbi pollitak, ikus-tekoak dire, gaichua! Ez du ez Antonik, dote edo ezkont-satu tchikia eremanen ezkontzen denean. Zei iduritzengaitzu, nere semea?

- Nei oraino deusik ez, ama. Gauza horiek ardurazkoak eta gogoan ongi ibili beharrekoak dire. Bethiko ezkontzen da.

- Egia da, ongi erantzun duzu, gogorta zazu nahi duzun bezinbat, eta gero emanen dautazu erreposta. HORTAN gelditu zen izketa.

Angelek, bada, etzuen erran ez baitzik ez ozetzik, gauza gero ikustekotan gagon zen. Baina ~~amak~~ amak uitari ta Antoni zerbaiz aipatua izan behar zuen, gerrago jakin zenez. Zandizgarretx arnategian, bere semea laster eta ongi ezkondutxo zela erran omen zuen: Antonik lagun artean, horriko mutilik edorrenak lura harta nahi zuela. Elke horiek storri zion Manasiren beharrrietara, eta orduan ezaugu zuen gaichuak bere barnean Angelentzat izan zuen ~~zer~~ etzela amodioa edo maitetasuna berterik.

Pena handia eman zion horri horrek Manasi, bihotzmin gogorra sartu zitzaien barnera; baina bihotzaren erdian gordeko zuen hotsegabe guzia.

Aruna handiko nezkatcha zen Manasi, bada arima handikoak ez dire aberatsu artean edo aintz iksitakoek artean izaten bakarrik.

Manasi etzen aberatsa, aintz iksitakoak ere ez. Bere aberastasuna, oñie bat edo bi hamabiren bat mihise ta bertze horren bertze buruko-achal; sukalde - tresmentzat, alasia; soineko ta ---

jauntzientzat kutch eta gaztan matilekin egindako lan edo sei ezar-leku izanen ziren; bere jaktitatea, herriko eskolan ikasi zuen pichtka, edo buraso ta horriko aphezaren atotik harturikoa, ekuarazko eliz-tiburu batuetan ikasi zuena gainera.

Bana berez zuen garbia ta zuzena izatea, jitez zen gauza guziak argi eta ongi ziren bezala ikusten zituen, eta hala hala sortu zitzaron Angelen maitetasuna.

Ba, zorigaitzean. Ohartu gabe, sortu ~~et~~ zitzzion eta ahi zuen maitetasun hori, bana bihotz-mina barnean atxikitiko zuen, Kambodxa mork ezagutu gabe, ~~ta~~ <sup>Yamkoak</sup> daki zer frenak jasan beharko zituen neskatcha tunek; bana, ahaldean, aurpegian, elhetsan eta harathunatetan, etzion nehorri deusik erakutsiko. Etzuon mork kechurrik edo anhenik entzunen.

Sekulan bano goiztiarrago, elizarakoago, Baz-Artuago egin zen, eta jostetetara etzuen bere buruak agertu nahi. Ometseri ate guziak hetsi, lurreko atoegi guzieni agur egin, gasterik Zahar itzurra hartu eta Yamkoak emaniko Kurutze haziuna ongi eremanetz bizi nahi zuen.

Zoin mingorraria izaten den holako, gazten bizitza! Zoin zorigaitzkoan zen Mañasirena!

Sortu: bihotz bero ta ederraren jabea izan, haurtsumeko egun ilburen ondotik maitetasunaren argi-pozgarria barnean senditu; argi hori gervago ta ederrago handitzen ikusi. Hori begira urte aintzetz, choratua bizi; ~~haurrera nahi~~<sup>hura nahi</sup>, izan, Zuburrak urea bano geriago, goseak janaria bano; beretxat izaki argi hori, azkenekotz, horrenberretxe amets ezti nahi horrekim ibili.... eta batere niste ez duenak, guizetik ~~arratara~~, argi hori bertze Batena dela eta bertze batzen gana dota entzun; erran nahi da, gochu edo eztitasun guziak min-gortasun bilurtu, esperantza edo itxaropen amiel-touenak galdu betikiko, argia ilundu eta eguna gautu. A! Holako nahigabea izan ez duenak ez daki nahigabea zer den!

Mañasirik berak etzakien, etzen orech ere, nola erori zen amadio edo maitetasunaren saretan; bana ikasi zuen maitatzen, bai ongi, bai sobera, eta berak etzakielarik zertako, han zagon betki etche chozoan, bihotz-min zorozaretik, eta azken aldera, betki nigar ta nigar.

Mañasiri bere bizikera berria ezagutu zionean Josepak, erran zion: - -

Nik, badakit zergaitik den. Norbaitek erran dantzu zuen Angelon gaineran zen ~~errotan~~ dioten. Bai, ta halache da.

- Eta?

- Eta chuchen dabiltsa. Egundokoa da Angelentzat Antoni.

Hala izanen da .... edo izan lakteke, eta urrikitzen zaitut sekulan bono egingo.

Egia zion Josepak. Nork ikusten ez duen barneko Kurutzea, milla aldiz nekeagoa da agerian dena bono, eta barnean zera billian Manasik, etzen mork ikustea beldur.

## - X -

### — Aterpean —

Eliburri zen berritz negu beltza, eta hunekin agertu zeren ipharaldoko aize hotz ta meheak gizon ta emazte zahar akhildueri ozurretaranoiko ikara sarrazaten baitzoten; Kurutzemendik laio-chapela jauntzi zuen; Orno ta Iñiz mendi azkarreri buruak chirritu zitzatzkotan elhurrez; Kantabriako ur handiak berde illunetx jauntzik ziren; baga edo tirain indartsuak arroka gogor-ekin borroka bizian hari ziren; Kai edo antxeta chiruak, chunka, han zabeltzan goizetik arratsera Arranondo ibai gainean; eta itsas-beleak, millaka ta millaka, sare handi bat idurri itsas-ate edo barraren ondoan, uretan ~~foratzen~~ <sup>pasugatzen</sup> ikusten ziren noizean behin.

Besugostarako sasoiak hobenean ziren arranondo-tarrak.

Angelet etzuen oraino erabaki ezkondu behar zuen edo ez. Etxuen hartako itxurrik emaiten. Itxasorako behar ziren gaugetan zabilan betki; itsasoan bizi zen goizetik arratserano

iduri zuen handik Kanpo bertze egitekorik  
etxuela.

Betun batez, masteak zangoa lehertu zion,  
eta miñez etorrizzen itsasotik etxera, ta  
etxearen egon behar izan zuen sendatu arte,  
luzaz, itsasora gabe. Baña etzen alferrik  
ezon hori ez. Arranondon, itsasorako ez denari  
leiorrean inauten diote lana. Leiorrean ira-  
bazten dute soldatua-laurdona edo erdia itsa-  
sorako indar guti duten mafil Kochkorrek  
gizon zahar lehenago lanian ibiliak edo  
erdi ere dabiltsanek, batzuek trapu-tcharretkin  
chalupak urez garbitzen, bertze batzuek arran-  
tzalen dupak ithurriko urez betxotzen, edo  
hamuak arrau handien janari betxotzen, eta  
holatsuko lan guzietan, behar bada.

Angel, zangoko miña iraun zitzaion arte  
guzian, bertze indar-galdurikako gizon eta  
indar natukako harrerekin batean, beren etche  
azpiko upelategian hari zen lanean.

dangile guziek lurraean zabal-zabala jarrita,  
lan aldetaunk bordinak diruen otharre aphasalak  
zango-artearen harturik, antchua edo zordin  
frustak hamuetan, levoz-levo, ezartzen

5  
hari ziron, tartean eskuarazko Kantu batzuek emanez.  
Batzuetan, gatzek kantuz aspertuta, gizon zaharrek  
amitzineko ictotzioren bat edo beren gatzte-den-  
borako gertakarien bat Kondatzen zuten.

Baziren batzuek, azkar ta sendo izan zirenean,  
Espainia guziko Kosta ikusi zutenak, bai eta  
ere ontzi handitan, urrungo itsasozetan barna,  
Ameriketako urotaraino heldu zirenak; eta  
holakoenei harrotasunaren aizeak puntu aldi-  
bat emaiten ziotenean, entzutekoa izaten zen  
hienetan ez-ta-bai-a.

Etzaintela harritu, natuklea, Arranondoko arran-  
tzaleak, noizean behinka, harrotasunak puntu-  
tzan zituela jakitea.

Harrotasuna non-nahi bihi da, edozein tokitom  
egiten du bere ohantze mania, zernahieratik  
hartzen du bere burua eder ta handitzeko  
eraikia: jite onekoa edo odol garbikoa delakotz  
jakinotsunagoa delakotz, adimen hobekoa, abera-  
tsagoa, ederragoa edo indartsunagoa delakotz.

Gauza da, zerbaletan bertzeak baino nobera  
geiago dela amets egitea, bertzeri gainetik  
behira begiratzea.

Harrotasunak izen ainitz badauzka, ordarazko  
~~Holatzak~~

izkuntzstan bedoren ; baina bethi bat da  
europa desberdin ainitzetzin jauntzita ere.  
Tchilik egoten da gerenetan, agertu nahi  
ez balu bezala batzuetan, baina laster eza-  
gutzen da non dabilan, hala jauntzietan,  
nola hizketan edo ibilleran...

Kamptoko Karrosa eder zenbait heldu bada  
Arramoudura, Karrosakoek portuko gizonak  
ikustearrekin, urriki handi-uste batzukin  
begiratzen diote, eta portukoek berriñaz ahoa  
bethean diote Karrosakoentzat : "Holako bi  
zangar mehe ukamillkada batean bota  
leitzkez. Horiek ez daktite igerikoa, ez eta  
ere erramuetan edo arraunak hartzen.  
Tchipiroek laster jan lezazkete horiek >>...  
Gizon bakoitzak bere harrotasuna badu; etxeko  
eta herri bakoitzak berea. Ni erraten da  
ahal den guzian, Ni erraten ahal ez denean, gur.  
Peru ta Mikolen arteko ez-ta-bai-dea (upela.  
Segian = zagozin bi gizon chahar, bi agure  
ziren Peru ta Mikol) Zoinek ur eta lur  
geago ikusi zuen izagon zen.

- Zu, non izan zare gero? - lehenbizikoak  
bigarrenari.
- Ni? - lehengak - Baionan ere bai; --

Santanderen ere bai, Gijonen ere bai.

- Baiona, Santander, Gijon! - Baia! Herri horiek  
edo zain haurrek ikusi ditu.... Koruña non den  
ere eztakizu zutk.

- Ezetz? Koruña Gijon Baño haratago da.  
Eta izan zare han?

- Ez.

- Ni, bai

- Baina, mi haratago ore izan naiz.

- Non gero?

- Lisbán.

- Bai eta mi Kadizen, Tangeron eta Leutian;  
moruak dagozen lekuak gero.

Moruen izena ontzun orduko musika guztiak  
eratu zituzten beharrak, eta ez-ta-bai-eko  
harria hurraturik, asiz ziren galdeka:

- Moruak Kadizen dire?

- Ez; Kadizen, gatz : gatzetara joaten ginen  
gaztontorenen ontziun. Ametia joan-ethorri  
eginitako ontzia da que "San Pedro" zaharra!

Zenbat manti ginen!

- Moruak, non dira, ba?

- Tanceren eta Zernestan.

- Zuk ikusi ditutzu, Peru?

- Bai, ehun aldiz sevirk.

- Nolakoak dira, ba ?
- Gu bezalatuko gizonak.
- Gu bezalakoak. Ez dira beltzak orduan ?
- Beltzak edo beltzarantak. Sorki bat siletyen dute buruan, eta jauntzi zahar, luze, zukin bat Soinean.
- Moruak beltzak dira, erraztuon huntas amalau urte inguruko multitcho batek. Nik ikusi nien bat behin Santandereko Karrika batean. Durpegia ta paparoa, eskuak eta denak, beltz - beltzak zeuzkazan, ezpainerak lodi-lodi, hortzak zuri-zuri eta kizkur-kizkur illeak.
- Horiek, ez dira moruak, erraztuon Mikolek.
- Zer dira, ba ?
- Afrikanoak dira horiek.
- Afrika ez da bada moruak burra ?
- Mikol galde humi zer erantzun ez jatinez geldituzen. Etzuen bertzenek egiten ahal. Itxasoan ahi, itxasoan indartu ta indargabetu zen. Baztakien zenbat oren behar ziren Arranondotik Kadizeria, edo Kadiztik Bilbaora, baztakien zin aize ziren aizerik hobekien joan-jin edo itzultzea egiteko. Barzelonatik asi ta

7

Donostiriano ziren uertzeko herri guzien partzeak edo barrak nolakoak ziren ongi bazakien; non zagozten tirantik gogorrenak eta sable edo ondarrik handienak ere bui; bazaktion noiz eta zinem aiztekin ezarri mastetan holako edo holako aize oyala; itsas gizon azkarra izan zen, hitz batez errateko; banza etzuen sekulan liburu bat hartu, etzuen irakurtxen ikasi eta etzituen egundaino jakin erresuma-mugak. Non ziem antziriarri zen etzakien, non ziem arrazakoak bihi ziren ere ez.

Mikolek eta haron guako bertze itsasgizonet ilhuntasun ta nahaste handiak ~~zituzten~~ buruan holako gauzen guinean. Ameriketan ziem zirenenetat Amerika guzia Habana edo Berakruz zen.

Gauza horiek ontzi-gidari edo ontzi buruak ikasi behar ~~zituzten~~ ~~zituzten~~ zituztenak ziren.

Nolanahi zka, etzuen nahi Mikolek bere ezjakitatea mutikoen antzinean agertu, eta elkorra edo gogorra balitz bezala bertze gauza batera itzuli zuen bere solas-aldia.

Hameka irustu ibili ditugu itxasoan 'jarrutu zuen - Hiru goitak hamazazpi urte izanen ditut heldu den Abenduaren Seiaren, eta Hortche, itxasoan, igaro edo pasatu ditut denak. Amasee

urte mituenean sartu mintzen San Pedron. Ordutikz hiru edo lau lagunekin negurtu ~~eta~~ nuen nore besoaren indarra, ukmiloa, eta tchopapeko chakurra baño chakurragoa mintzen. San Pedron egin mituen Kadizeren joan-ethor, zazpi urte; gero Santa Kruztzen bertze hiru, eta ezkondu ezkerro hemen ibili naiz belhi.

- Beaz, gaichtoa zinen zu gatzean, -galde egin zion Angelik.
- Gaichtoa, gaichtoa errateko ez; aoki harrota lotaagabea; begiondonaren bat belztu eta ~~beren~~ tokitik hortz batzuetak ateratu, ez dute bertze kalterik mhorri erakarri.
- Eta ez duzu sekulan turabiarik egin?
- Ontzi handietan ez estualdi frango ibili arion; chalupetan bi aldiiz; bana gainekoari eta Antiguako-Amari esker, bethi ongi atera izan naiz. Ez naiz ni behin ere itxasora joan. Antiguako-Amaren baseliza ikusten den tokian Chapela edo boneta kenduta, Agur Maria bat erron gabe. Lehen hola egiten gizmen denok. Gauz ez dakit. Beste bat arrikiago da biltzala oraindik gazteak. Eta zero larrinalditan Andre Mariaren laguntasuna behar.

- Antiguako-Amari laguntasun amitz zor dioz kate Cerdz Arranondotarrek.

- Bai, amitz; nulla aldiiz atera ditu estutasun handietarik arrantzaleak, hauk nola etzaktitelarik. Nik badakit gertakeri edo ichtorio polit bat aitaturi entzuna. Egia den, gezurra den, ez dakit, bana mik egitxat daukat.

- Ezra, Mikol, erranguzu — deadar egin zuten mutikoek.

- Hor doa, Beaz. « Behin, bertze amitzetan bezala, arranondotarrak ateratu omen ziren itxasora denbora bihiki garbi onarekin; berria ornatulderako zenu guzna gorbeldu omen zen, eta aizea, galema eta euri zaparrada ari omen ziren gainkoak lagun. Chalupak ez omen zireni ageri, eta hoiakotan ugaten den bezala, horriko gizon ta emazteki guziak, Kechu ta arduratu ba-zeoazken batzuek eliza incusira, bertze batzuek begirali-esthera, eta Antiguako baselizara norbait edo bertze. Eta hemen hasten da gau-zaaren harrigarritasuna. Antiguako Ama garbi ta ona ez omen zen bere tokian! Emazteak egon omen zireni galdeka eliz-zainare, ta eliz-zainak erran omen zioten goizean, argi-ontzia ezarri zuenez, han zogala —

betri bezin eder ta eztia, eta etzakiela gehago  
dousik; galde egin omen zioten apiez - na-  
gusari eta harek ere etzakiela dousik.

Zabaldu omen zen bercala horri guzian berria  
eta joan omen ziren herriar guzrak, zahar  
ta gazte, Antiguako inguru ta bazterrak  
miatzena.

Alferstan: Antiguako Ama etxean Arranondon  
edo norbaitek ebatoi zuen edo berak  
iges egin. Baina nork ebatsi, lehenago ere  
ebastera joan zitzazkon ohoinek urhatsik  
ezin eginez gelditu baitziren aldare ondoan?  
Gainera, zertako zuten ohoinek Andre Mari-  
aren sandua edo iduria, aste-egunetako  
soinekoekin baitzen orduan? Eta zertako  
iges joan bera, Arranondotarrak hainbertze  
maite izaki-ta? - Gauza iluna zen biziki  
iluna, eta nork etxezakoen erran nola gertatua,  
Antiguara igan ziren gizonezkoak menditik  
behera jautsi zireneko, heldu omen zieren chalupak  
pearra, parra, patchada onean, ekantzik ez den  
egunetan etortzen diran bezala. Batek Bakarruk  
egun omen zuen tira-bira; baina hango gizonak  
Ama Mariaren sanduari mungoa (mubuka) eta

zehaztu zuten asu ta laster, uretan zirelarik <sup>jakin gabe</sup> etzakiola  
nola, Arranondoko plazan edo londartzarán atxeman  
omen zuten boren burua, batere minkit gabe.

Norbaitek (aide!) airean ekarri zituztela edo...  
erraten omen zuten. >>

- Milla debruak! Bana nola?

<< Egon ichtampat, eztut atxabo. Heien izigarrizko  
gentakaria erraten harri zirelarik hara non heldu  
omen den ~~laste~~ Antiguako eliz-zaina lasterkia,  
atsak-haurtua eta oyuka: agertu da, agertu  
da Andre Maria! >>

<< Nondik? Nola?

- Ez dakit, baina bere tokian da.

- Igan omen ziren berritz, Antiguara herriar  
guzrak, eta egaizki, han omen zen Ama maitea.  
Bai, han omen zen; baina soinekoak bustiatik,  
eta barnekoak arez edo salbez betheak omen zituen! >>

- Milla ta milla amigeruak! Hori da gauza  
harrigarria! ... Orduan Antiguako Ama ~~arran~~  
nondotarrak tirainen artetik ateratzen ibili  
bide zen!

- Hala da ustea, Bertze askotan ere ibili  
omen da uretzear, ta ardura atxeman omen  
diyukte soinekoak bustiatik eta harinez betheak

10

Eta azkenean entzulek galde egia zioten Mikole  
ntakoak izan zivien haren tira-burak.

- Nerek oy dute erratoko handiuk.

Entzungarmagoak dire Kitolisenak, eta  
horrek erran detzala bereak, errepostu  
Mikolek.

- Zira ba; orai Kitolisen chainda da eta  
mintza daria.



## - XI -

### Kitolis

C'était un joli petit homme tordu, un homme qui portait quatre-vingts ans sur ses épaules.

Trois ou quatre cheveux gris se dressaient sur son crâne dénudé. Kitolis

Gizon atxiki polit makur bat zen hau, bere sorbaldetan larrogoita bi urte handi jasoten zituen gizona. Hiru edo lau bilo zuri-beltz zituen bere buru larrutuan, chut-chutak; aintz geiago et churiago zituen lepondoko ille kiskurtuak, arkume edo bildots bat iduri, behain luze betien azpian begi urdin-kara gozo-gozoak; aurpegi beltz dena zimurtua; oial lodi zakar batekin eginikoa-palto edo jaka zaharra soinean; gerriko bat praka edo pantalonen atxikitxeko, ontzi-soka lodi bat bezala bikurtua; eta zuvezko eina-akoaK zangotan.

Besta-egunetan, hobeki beztitzen zen, elizarako. Cherri-urinarekin, olioarekin edo itsas-urtearen zainarekin, norzean-behin, gurezten zituen

larruzko oinetakoak, ahorra churi garbia  
zaharra bagen ere, ~~edonostokoa~~<sup>edonostokoa</sup> jaka-prakat  
edo palto-galtzak<sup>edonostokoa</sup>; horiche zen besta-  
egunetako jauntzia.

Itoasorako on etzelakotz gelditu zenezkerotik  
egun guziz entzuten zuen mezatzu bat,  
egun guziz joaten zen arrosarioa; errox  
batu tamkoan ereman bchar zitzaionean, han  
joanen zen Kitolis, argi batekin, Sacramentu  
Sanduaren aintzinean eliz-inguruau, ibili  
beharrak zenean, han ateratuko zen jaunaren  
zaintzeko matillarekin; elizkizun edo  
ofizio guzietan han izanen zen Kitolis alkate-  
aldearen gibelean, belauniko.

Herritar guziek marte zuten: ain zen chintsoa,  
aphala, baketsua, eta adinendu onekoa.

« Ni, ez naiz izañ, Peru ta Mikol bezala,  
ur handiko arrauna - au zen erraten beren  
atherbeko lagunen. - Zoleta baino handiago  
ez mintzelarik, bederatzi urte mintuenean  
ereman ninduen aitak lanera (mazira<sup>9</sup>);  
neguko izotzek gogortu danztazan hezurrak;  
ndako eguzki bewak beldutu azala; Besiñu  
ta atuney asez, loduta ~~mendebalde~~<sup>poniente</sup>. Ni ere, ---

Mikol bezala, itsasoan luizi izañ naiz leiorrean  
banu guago; banu outxi handietan ez naiz  
egundanio ibili eta Kantauroko uretarik ez  
naiz ateratu, hala beharra baitzen. (independant du ma volont)

Hala nola, nete frango ibili ditut itsaso horren.

« Hiru aldi zegoen tirabira. Lehenbizikotz,  
Arno gibelean, besiñutan qinelarik; bigarrenean,  
aorte herriko sartzean; eta biertan orru gintzuetan  
herriar lagunek. Banu hirugarrenetako!

Beltza eta ikaragarrizkoa izañ zen hirugarren hori.  
Hain chuchen, ibaien barna itsas-alde Kanporantz  
qinocazilarik, hau zela ta hori zela, bertze  
Chalupa batekoetkin asarretu ginen; oinua, zara-  
taka eta harrokeriazko lutzak elgarri erranez,  
ateratu ginen ur-zelaiara, eta mhorren etze-  
tziaion gogoratu Antiguako Amari bethi errauten  
diogun othotza erratea.

Eguerrri aintzinean zen. - Ba-goazi, ba goazi  
ilunabarrean, chalupa Achiki-batean lau lagun,  
berdeletako Orioko aintzineda. Bakarrik  
gelditu qinenean, berandu zela-ta, hotz ere  
zela-ta, arrain pizka bat ere bagimuela-ta....  
asoi ginen etche alde. Ez maltschoa zen, erran  
naku du leiorretek heldu den aiztea. Ezarri -

ginuen behoa, eta heldu ginen Kezkarruk gabe; halako batez, "Orat" jotzen gaitu auze bumbada gogor batek, eta "Osasot" denak itsasora, chalupa barnetxo arrain, otharre, soka ta treina guzizkin batean nahastekoa.

Hala ere ateratu ginen urazpitik, hor bat, hemen bertzea denak hotzak ikaraz. Hurbildu ginen, izenik, popraz gora zagon chalupara eta galde egin elgarri! « Gizonak, zer zen hau? Kirk erantzun beharrak etzen izan, denek baginakien-ta. Lazakeria bat, confidentzia handiegia. Nori gertatzen ahal zitzaioun holakorik, itsasoak bare-bare izan-ta?

« Egundaino holako negarguarrik mork ezu ikusi. Gure ondoan etzen nior, eta hantche egon beharko ginuen ur gainean, goiz-arte. Goiz-arte! Eta oraino, guinez ere, etziren seiak izanen! Hotzak eta ikarren gendoren, eta hamabi, amahiru edo hamalau horen egon behar halache! Eta, qaimera, goizean nior ethorrako zitzagun, ez jakin!

« Ea, mutillak, ea! Itoitz bat egin dezagun Antiguako Amari eta eskain dizagun, denak ortutistik eta eriamuak lepoan bere elizara joatea, homondik ongi ateratzon bagare, eta asu-

gaiten orai arrosarioa erraten.

Ezarrri nuen nik Skomes (Nikomedes) nore hamabi urteko some ederra, Killaren gainean, auspezi, eta ahi ginen othitzetan. Jainkoak daki zenbat othitz egin ginituen.

Huntza gihelarik, hamarrak aldean, aizcaren indarretik eta chaluparen zabunetik konprenitu ginen itsasoak urakin behar zuela eta gure ondoan zabillala eriotzea. Iñun zen.

Getariako eta Zumaiako itsas-argiak agerizten lurrean, eta neru, hulen argiak iduritzen zitzazkitan. Hiltzera girozaren osasun guziarekin!

« Zer tenore othe da? - galde egin zuen Matxin zaharrak, hil-hobiko boza batekin. « Hamarretarak hametxetara, eman gironen errepostu - Eta berak oraino beharrietan dutan boza ilhunenarekin:

« Zoin-luzea den gaua - jarrauki zuen - zoin-luzea! Nik ez nezake iraun, laster akabatu behar dut, zuetz ikusten baduzue guretanik...»

Etzuen deusik guago errateko astrik izan, badi tiram edo baga handi batek urrundu zuen gutanik.

Bernitz ekarriz ginuen gibelara; baina etzuen deuseztako ahalik, eta ahotik bista edo haguna eriola, damu dut, jauna, damu dut, erranez -

ham joan zen ondora ....

Ibasoa gewago ta handiagoa heldu zen, tirainak gewago ta indartuagoak, geroago ta nekatuagoak ginen gu. Nihun ezin eganez, batuetan Killa gainera igauten ginen, bertzetan Karelara jauzen, gainean ezin egon. Ez zuen luzea zela erron zuen Matchiniek. Bai, ongi luzea.

Nore Semea, nore Iñaki gauchea, hotz ikara handiak hartu zuen, eta negarrez ta choitza aita, aita, aso zitzaitan deika. Hau zen urrikigarritasuna! Aitak ezin denuik egin bere Seme maizaren alde, bihotzeko negar gorria bertzerik; aitak ezin goiza ta laguntasuna erakarri, bere bizia eman. ta ere.

Azkenean, etsi ginen, ez ginen lizaroko.

Jo gintuen bertze tirain batetik burutuk behera, chalupa joan zen gure eskuetanik eta elgarrean. Aurreruntzu ginen berriz hiruak.

Vorpetik acharera atera nintzenean, au nintzen igerikoa Semearen bila. Ez nuen mi orduan indar handiak, harraskeriarik ere ez. Atxeman nuen Semea, eta chalupa-hauno ereman ere bai, eta erran harri lotzeko.

Ezin dut aita, ezin zion. Artu nuen orduan nere bularraren ondiba, chaluparen eta nere gorputzaren bitartean egarri nuen. Ibilbideko goki ginen denak, bildurgarrizko ichiltasuneari.

Iñaki, galde egin nion handik laster, Iñaki, ongi zare? Ez zuen denuik erantzun. Nola bida, illa baitzen.

Hunton, Kitolisek negar malko lodi zenbait ichuri zituen, eta entzuten zagozonet ere etzuten urrun negarra.

LK - Nik ez datik zeu Senore izanen zen-erran zuen - bertze tirain batetik chalupa ta Semea besoarteetik Kenda ~~zautatea~~ zaiztan; eztakit nola lotu nintzen berriz chalupari, eztakit nola egon nintzen goizeko zapiri ta erdietaan Getariako chalupa batetik hartz girotuene arte.

Azkenean, ezagutza karrik galduak, ziri edo taket batzuek ginen gibeletkoa ta ni, zeu egiten ginen ez genakieharik, lotu ginen berriz chalupari, lapak arrokari banu gogorrako, atzamarreanik odola enogula. Heri egon nintzen gero ilabete bat, eta sendatu nintzenerako, itxasora berrixta. =Denak ichildu ziren orduan, Kitoliseko bildurteko mina Kentzearren; aso ziren kantuz aterbea gazteak, eta etxien ichildu lan guzia akitatu arte.

## XII.

## Belhar txarrak

Kitolis, Makol, Goru ta bertze lagunak ziren atherbetik hurbil, Karia gaurian chutik ongi jauntziriko bortz gizon bazagozin elhetketa eguzki epela hartuz.

Karabinero edo guarda armaduna zen bat, "Kontrandaren" kontra<sup>10</sup> Arranondon zagozin bertze Karabinerren buruzagia, eta erdalerrukoa edo espanola erran gabe doa; bizardun baserritarra Bertze bat, "Amerikanoa" erraten zioten, Ameriketan aberastua, ez erdararrik ez estuvararrik etxakien mutil zaharra, zeren bat ahantzi zitzaion eta bertzea etxuen ikasi; Arranondoko magasmetan oial saltzera, noizean behin, Billastik etortzen zen gazte pollit, guri, buru-ariorrekoa bertze bat; itxaseten hizaz ibilliriko ontzi-aintzindari azkar, zintzo ta bezia bertze bat; eta bortzgarrena, arrain, atun, zardina eta conserbuetan hau ziren lantegiko nagusia, erdaldua hau ore.

Arranondon lanik gutxiena dutenek bezala, hori

ta homen elgar atxematen zuten eta elgarretik egoten ziren audura, oial saltzailea ez bortzeak, eta hau ere ba, heietan, Arranondon zenean.

Gure Itsasgizonen kopeta beltzekoa zen, hitz latzekoa batzuetan, bihotzean zuen guzia ause Kanpora botatzen zakiengiz gizona nornaluri egi handiat erraten zizkana, behar zenean; baina arima bizi ki argi ta onekoia. Bethi edo errechki asarretzen direnetarik etzen; baina Eskual-Herrriari edo Elizari hunki aldi bat niort eginezker, asarretik etzen hurren ibiltzen.

Lelo edo arrazoi horregatik, hau da, Eliza ta Eskual-Herria batean egin utzi zutelakotz, Itsas-Gizonak, lehin bano geiagotan, eman ziozkaten merezi zituzten errepostak, miñ beretik elgarretara biltzen ziren Kanpotar edo Kanpotarturiko batzueri.

Baina, hala eta ore, etxeten harengandik iges egiten, maite zutelakotz, edo dirutsua zelakotz Arranondo guzian ongi ikusia eta eskubide handikoa zelakotz.

Bortz gizon hauk erdaraz hau ziren, baina mik estuadumentzat egiten dut lantó hau eta eskuaraz ezarriko ditut horien elke guztiak.

- Nik ez datik - zion ozpatadunak, zeren zenbait zokotan egoten baitzen ahantzia lehenago - ez datik --

zer debruzko Kantuaak ematen dituzten Barne  
hortako asto horiek beren zakur-izkuntza  
horrekin.

Ibas-gizonak, aurpegia ikhunduta:

Asti zindutzen huna et horri baino lehenago  
ekinara ikastea; dena konprentuko zindutzen  
orduan ederki: Ni, Kanpoko herrietan ibili izan  
nagonean, hienet mintzairean hari izan naiz  
lekuko jendekim. Ezgait sekulan gogoratu  
haiek behar zutela nerekim estuaraz mintzatu.  
Karabineroak: - Baina, gizona, zer erraten  
duzu? - Zuen eskuara hori, alde batetik,  
erdi-mintzaire tchar bat da, eta bertzetik,  
español guzietik Kastellanoz nahi dugun min-  
tzatu. Kastellanoz bakarrak hari behar da  
España, eta bertze mintzaire guziak alde  
bat eta bethiko Rendu.

Ibas-gizonak, berotzen asita: Gaizki hari  
zare, jauntoa. Eskuara lehengo izkera-buraso,  
eder, manitso eta gozoa da, Kanpoko jakin-  
tsoon ainitzek datuten bezala, zuk ez jakinik ere.  
Eta, gainera, nork erran dantzu zuen nahi ta  
nahiez ikasi behar dugula zuk Kastilla-ko  
izkuntza. Ez dut erraten, nahi dutenek

ez dezatela ikasi, ikasia bethi on baita: nork  
nahi ta nahiez, mintza-araziko gaita nahi ez dugun  
bezala? - Gu izan gare "independent eta libre"  
gurekor ta askatuak, eta gure lagunba eman  
diogn Espaniar. Indarrak, holakotan, ez dezake  
lan omik egin. Hola Balitz, Napoleonet, ethorri  
Zenca, España bere meneko jarriko zuen. Baino  
bego alde batera Eskualdumen askatasunak.

Zertako Rendu behar zait gizon, etchadi edo familia,  
edo herri batz bere baitako itxura, bere aberastasun  
nihorren omik gabe? Zertako behar gaituzte  
Rendu guri gurea? - Ez othe da asti guhaurrek  
gure lurraean dugun outasuna ez ezagutzea; ez  
othe da asti izkuntzarik zaharrena eta maita-  
garriena ez ikastea, arrotzek egiten duten bezala,  
ez othe da asti gure mintzairea bayartua izatea,  
nork entzum ere ez naiz izatea? Hil eta European  
ezarru behar da gainera.

Zertako beraz ez utzi guri, zuen ta gure zaharren  
izkuntza ederra, mendi tartean gordea eta atxikiak?

Karabineroak: Eztaite asiarretu, gizona; baina  
jakin behar duzu eskuarak ez duela zuk uste dugun  
bezinbat edertasun.

Ibas-gizonak: Zuk nola daki zu eskuararik  
ikasi ez baduzu?

- Oial saltzaileak : Nik ere ez dut ikasi Bilbaotarraren  
izanaren eue, bura soek <sup>zautzaten</sup> ezpailindunen erakutsi;  
baina ez dut batere daimurik. Eskualherriak  
kamposa, eskuara ez da deusetarako, eta Eskualherrian  
berean edo zeinek badaki Kastellanoz edo erdaraz.
- Itxas. gizonak : Zuk eskuara ez jatitea daimurik  
ez izatea, ez da harrigarria. Zuk, Bilbaotarrak,  
aspaldia geldua duzue arbaso edo amitzinekoen  
mintzarei gozoa, eta aspaldia erdaldunduak  
zaiete; eta gainera, zuretzat, sal-erosketeko ona  
ez den gauza, ez da sekulan ona izanen.  
Zakin zazu gure eskuara ez dela saltzeko, baina  
Eskual Herrian egoteko eta zabaltzeko.
- Amerikaneak, Kukurruku egitera doan oiharrak  
bezala burua altchatuta, Sudur-azpiriko bizarrak  
Kizkurtuz, echu-echtia, gozotzi :
- Nik erran nezake mork bano hobeki, lur  
ainitz ikusi ditutelakotz : Eskuanak ez du  
ogia irabazteko balio.
- Nola aberastu zare bada zu jure erlara ederrarekin
- Nik nere ogia barrua tiratutik era ongi irabazio du,
- Ez tut erraten ezetz, baina lanean hantzeko ez dut  
unte eskuuanak Kalleku egiten ~~ez~~ ahal duen.
- Baserritar lezardun edo Amerikanotak etzuon deusik

erantzun; Karabineroak eta Oial Saltzaileak etzuoen  
deusik erran nahi izan beldurrez Itxasgizonena asarretu;  
eta donak ichilik gelditu ziren ichtant bat.  
Bitartean atherbekoak hau ziren Berrio-Ochoa-ren  
bizitzear kantatzen, eta lantegiko nagusiak gure  
Itxasgizonari galde egin zion.

- Zakin litake zer dioten barne hortako horiek.
- Bai, gizona, bai : Lehendik Hamar Manamenduak  
eman dituzte eta orai Berrio-Ochoaren bizia.
- Nor da Berrio-Ochoa hori?
- Apiez eginta laster Komentuan sartu zen Elorriolar  
gizon sailndu bat; Apiezpiako izatera heldu zenez-  
kerro, eta Jesusen Sinkeslea zabaltzen hari zelarik.  
Tonkin-en ~~ez~~ moztu zioten burua, ezpataretkin.  
Lantegiko nagusiak - ; Ba, ba, apiezten ichtoriokoak.
- Bi zurdunak : Hori bera da, hemen ez da bertzerik.  
Karabineroak eta Oial Saltzaileak : Egia da.
- Itxasgizonak : Ez dakit apizezenak deren edo ez  
atherbekoek kantatzen dituzten hitz-neurituak.  
Hemen, eskuaraz, normahietz eta zernatu gauzen  
gainean badaki hitz-neuriteten, buruz ta errechiki:  
nafiz Eliyako erakutsiaren gainean, nafiz herriaren izan  
den geratuen batengatik, nafiz erramuetea, idiketaea,  
aizkorakotza, edo pilota-partida galdu edo irabazi  
delakotz.

Eta nolanahizka Kantu horiek erdalerritik heldu  
diren hitz zikin batzuek bano ederragoak dire.

Zer idunten zaizue?

Amerikanoak: Bai, bana ez dire gauza goziak  
apiezak erakutsitakoak izan behar.

Txakitateak ithurburu on aintz baditu.

- Iragizoenak: Ikarbide amitz baderela erron  
nati baduzu hori egia da. Bana, apizezen  
etra zarenezker, errazu: Nork daki hek bano  
geiago Arranondoko herrian. Nork erakutsiko  
dauzku zeruko bidea hek ez bada?

Amerikanoak: Neri ez dantate sekulan deusit  
erakutsi.

Iragizoenak: Sinhesten dut; zuri ez dantzu  
mota deusit erakutsi, eta hortako zuri, zaren  
bezalakoa.

- Ezarra, ez da hala? Kanpoan zerbaitek ikasi  
dugu guziak, txarrak gare zuentzat.

- Hori ez, adikidile, hori ez. Kanpoan ikasiak  
ezagutzen ditut hameka jaintokiarrak eta  
eskualdaleak. Zu ibili zaren lurrean, Ame-  
riketan berean, badie Begonako Amari ojizio  
ederrak egiten diazkaten eskualdunak eta  
keien dor-lekuko mintzairea bihiki maita  
dutena. Ez guti ger, bana aintz. Biybeharrak

ereman zituen hurrumera bana eskualdum bihi dire  
eta libotza estu alderriean dute.

Karabinerak: Bana, orduan, gu ere gaixtatzat  
hartzen gaitutzu?

- Nik ez dantzu duzuenetik deusik kendu nahi,  
eta hortakotz erranen dut zerbaiteko onak izanen  
gaitzela. Bati, eheti chuchen ez diren lege  
batzuen itzalpean, herrien mugarririk ta itsas  
inguruuen zaintzeko; bertzean, hori non bait egini-  
kako oial txarrak angeles oial azkartuz emateko;  
bertze huni, herriko arranik merkina olioan  
piztak bat erre ta Kanpoan Kario saltzko.

Hortako onak zaizte, bana ez Elizarenzat eta  
Eskuaherrirarentzat.

Sinhestenik ez duten gizonek, hizketa eta erakuste  
gaixtoak ekartzen dituzte herrietara; eta zuek  
gizon argi jakintsunek, ez duzue sinhesten onaren  
piztak. Belhar txarrak zaizte zuek.

Denak?

- Zuek bai, zuetarikoak ez, Jainkoari esker.

- Bego, bego, akabatu zuten, zigarro bana harturik.  
Eta Amerikanoak erran zion iragizoneari beharru  
ohkorra, eskuaraz:

- Zu apizezekin apieztaua zare.

Eta bertzeak Amerikanoari:  
Eta zu, aberetkin aberetua.

Itzargizaren zirikaldia etzen Amerikanoak  
Konfronta. Oberea zer zen ez zatiene.  
Alimalea eruanen zuen berak-ta.



- XII -

Buruz-Buru

18

Ura, gatza ta ezkata darioela ibiltzen dire  
Arranondon Chalupa jaben smazteak, beren alabak  
eta alegereko smaztekiak, besugolarako behar den  
arrain txikia dupelategieta ~~era~~eman ta  
gazitzen. Baina, berez garbi dena, gauza gu-  
zietan izaten da garbi, eta gure Mañasi, arra-  
tralde batez, Kalotchak oinetan eta telazko  
zaiar Jainean, ontoa orraztaturiko illea  
mokanes polit batetkin lotua, ezkatak ongi  
aizerratutik, eta iturriko urean eskuak gar-  
bitututik, etche alde zioan lan horien ondotik,  
ahal bezin eder, ta bertze edozom batu garbiago.

Hain Chuchon atherpetik ateratu ta, orduan-  
Ache zioan ñangel ere karrika batetik bertze-  
rako eskaler malletan gora, Ernestaka, Ernestaka,  
eta, ustegabean buruz-buru egin zuten bi  
gaztek. Mañasiri, aurpegiiko larrus ~~Churia~~ gorrutu  
zitzaion bereala, barneko zarrada  
handi batetkin eta kaupadaka asi behotza;  
gure nestka zer eran ez jakin, gelditu zen  
erdi motelduna.

Angelek, parekaren ondoko egur latzari lotua  
gozalauik, atsegintxim ikusi zuen auzoko  
nestkatcha.

- Zer duzu, Angel? Istandu zion huneak, hutsa  
zin zitzaionean.
- Gauza handirik ez; baina hementzhe nago  
zenbait egun hautan, deusestarako ez naizelatzotz.  
Duela zenbait egun, ortzi alean naski,  
Chalupan, marte handiarekin gabiltzalarik, es-  
kutarotz igeri egin. Ta, ~~ezkerreko~~ ezkerreko  
zangoko eruak lehertuak izan ditut.
- Ez duzu beden ~~et~~ hausturarrik?
- Ez, leherdura bakarrek. Hala erran zuen mi-  
dukoak edo astagileak.
- Eta zeretkin egiten duzu?
- Lino-aziarekin edo ez dakit nik.
- Olio ta annoarekin nahas?
- Baietz uste dut.
- Ez duzu ibili behar.
- Beaz, etchean egon alferkerian.
- Etchean ere igaten dira lanak.
- Atzo ta herenegun egin nituen egin beharrak:  
eskua-soka ta tchupiro-harpoia batzuek, behar  
dienekoa. Orai ez dut gelaiko beruniek, ez eta ere

alanberrik eta ari churrrik.

- Gure aitak badanika, eta nahi baduzu....
- Ez, ez, mil esker. Badut lanik asti amu  
ta bretxetkin
- Euk, denak utxita, sendatzale baten gama joan  
behar zinduke.
- Zerbait egun beharko dut hobeki ez banoa.  
Angelek, nekatzen zelatzotz eche-echtia igaiten  
zituen harrusko malla zaharrak bidean atxeman  
zuen lagunari bazterretik begiatuz; bertzeak,  
etxerriko gogortz etxuen, eta oraindik Angelek  
banio emekiaigo igaiten zituen. Astetik izan zuen  
beldurra bota zuenean, geroago ta errechikago  
mintzo zen, arruberatik gainerako karrikara las-  
erregei igaitea etxuen nahi, ondoa zen Angelekin  
elheketa, eta hau dela ta hori dela, horroka ta  
hemengoa, mintza ta mintza, tchutchu-mutchu,  
ahal zuen bezanbat hizkazten zuen mutilla-  
rekin zaukan gatz-gabeko hitz-aldia. Eta  
gatzik gabekoa izanik ere hitz-aldia, edo berakatxa,  
edo porroa, edo tipula, bazezen zerbait; mutillak  
ere geroago ta baratxeago igaiten zituen malla,  
eta azkenetako, Manauari sintzon-airitzinean  
begira, pauza aldi handiak egiten zituzten  
malla batzokcheinan.

Aurregiko gorutasuna joan zitzaionean  
neskatxa gazteak exakutsi zion mutillari  
bere begirada ederra ta amultua. Angelak  
etxuen halako begiradariik ikusi, eta atse-  
gin hartu zuen, ordurantzche.

Zer erram handiak etxuten beren artean, baina  
etxerat joan behar handiak ere ez, itxu-  
raz beden, eta goiti ta behuti zabiltzaneri  
"Egur" edo "Arratzaile on" egin la, harri ziren  
beren elkeketa luzean.

Hunton, lehen goiti joaisten ikusi zutena,  
Erramana, heldu zen berriz behuti, eta bi  
eskua gerriean, neska-mutilleri ixtant  
bat begira egon. ta:

- Gazteak - erran zioten irriz - luzea  
dizue aria zuek. Ezin pista ezin pista?

Eta Mañasi, lo gocho batetik iratzartzen  
balitz bezala, gorri-gorria egina, begi horri  
zabalekin begira ezarri zitzaiionean;

- Ez lotsatu, neskatxa! - jarraindu zuen Er-  
ramanak, - ez lotsatu, sasoiñean zaizkete. Hau-  
tuak zaizle zuk bat berhearentzat.

Haurtua egon zen Mañasi, bere barneko  
ametsak agertu zirelakatz : Angel, mihoiz baino

geiago ta hobeki neska gazteari begira.

Entzun duzu zer erron duen? Istandu zion Mutikoak  
Mañasi.

Zernati gauza horrek - erantzum zuen beryleak  
lotsgabe handia baita.

- Bai, lotsgabea da.

Eta hauchea da ichtorioa. Erramaren errana  
lotsgabekeria zen, baina gure gaztek etxuten  
tzartzat hartu. Iriz ari ziren arrain saltzaleak  
erran zituen hitzez.

- Ez baginaki bezala - zion Mañasi - Angel  
ez dela Tchanagorriren alabarentzat.

- Zertako ez?

- Zaudie ichilik; aintz gauzen gatik. Herri  
guziak ez othe daki Antoni Errotarekin ezkon-  
tzen zarela?

- Leku guzietan, emazten mihietan bereziki,  
berriketa handiak ibiltzen die. Nik erraisten  
dautut eta sinhesnezazu, Mañasi: Neri  
oraino mihoretik ezkontzerik etzait gogoratu.

- Egia diozu, Angel?


- Egi-egia.

- Nola, orduan, egoten zare Antoni zekin?

- Aintzietan ez naiz egon. Zurekin baino bakunago.

Baina neretkin, bortze era edo manera batean

- Zuk zer daki zu?
- Hau entzutean, Manaiari bi begiak negarrez bethe zitzazkon, eta Angeli bat. batean bereak argitu. Geiago mintzatzeko astirik hartu gabe, neskak gazteak chalupetako mutillak petik-gora heldu zirela, ikusi zituenean: Ene! Chalupak etorrri dire, aferia egi. Akoak ditu, eta joan zen lasterka etcherunetz Angeli "Agor" egin gabe. Himek ere etzior agurrik egin, bana bere baitan erran bai:
- Zortako ez da orroitu lehenago aferia egin gabe eukala?
- Zer diozu, irakurlea. Ametsedan hariko zela gau hartan Mñasi. Jokima da. Bana ametsak, ametz izaten dire bethi, itxurakoak izanak gatik.



## - XIV - - Nahi-gabeak -

